

unai elorriaga
ruper ordorika
iban zaldua
asier serrano

maider oleaga:

euskal pilota. larrua harriaren kontra

juan ibarrondo:

vivos, muertos y viajeros

joseba iriondo:

palestina hotela

zinema euskaraz, tinko

euskalerrriaren adiskideen elkartea:

arabako historia & pertsonaiak

bagare euskal tokia

txabi arnal:

idazleen katea

erlantz urtasun:

orreagako gatazka

CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia


BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.

**CEGASA**
INTERNATIONAL





ahorik aho:

7-9. orr.

EUSKAL PILOTA. LARRUA HARRIAREN KONTRA: maider oleaga elkarrizketa-egilearekin mintzo

10-11. orr.



JUAN IBARRONDO, *Vivos, muertos y viajeros* (Biziak, hilak eta bidaiariak) liburuaz

12-13. orr.

JOSEBA IRIONDO, *Palestina Hotela* liburuaz

gaika:

14-15. orr.



ZINEA EUSKARAZ, TINKO!

16-19. orr.



"Arabako historia bere pertsonaien bitartez" liburua (Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte)

20-21. orr.



BAGARE EUSKAL TOKIA, GURE ARTEAN BERRIZ ERE!

22. orr.



EUSKALTASUNEAN LAGUN: Ruth Larretxi

GAINERA...

- **Han-hemenka** (4-6. orr):
- **iritzian:** jose luis garcia de falces (nabarralde): 'Guztiok lokatz beretik sortuak' / euskal herriari bai herri ekimena
- **kaleak dio:** CORTADA VIII, gogoan
- **araba bixotzian :** **JON ZUBIAUR,** kolaboratzaile berria

- **KULTURAISSALDIARI SO** (23-38. orr):
- **agenda** (23)
- **idazleen gupila III** (*istorio berria) - **TXABI ARNAL:** Depende III (24-25)
- **historia zertzeladak - ERLANTZ URTASUN:** 'Orreagako Gatazka' (26-27)
- **arte txokoa:** **UNAI ELORRIAGA, RUPER ORDORIKA, IBAN ZALDUA, ASIER SERRANO** (28-31)
- **bidai:** **MAROKO** (32-33)
- **Naturaren Islak. IÑAKI ZORRAKIN** (33)
- **errezeta / BERTAKOARI SO!, ERLANTZ URTASUN** historiagilearen txokoa (35) *txoko berria!!!
- **geu-ren gunea:** geu-ren eskaintza eta gomendioa. **MINTZALAGUNA EKIMENA** (36-37)
- **komikia** (iñigo sarasola) (38)

Azala ...



azaleko argazkia: edorta sanz

UNAI ELORRIAGA, 2001eko Narratiba Sari espainolaren irabazlea

"Euskal literaturan nekez egon gintezke hobeto; egun 10 bat autore daude zeinak mundu osoan ezagutzen gero, munduko 100 literato onenen artean egongo lirakeen, Saizarbitoria, Sarrionaindia edo Atxaga, besteak beste. Egun, euskal literaturan idazle gazteak nahiz helduak oso onak dira. Gauza benetan onak egiten ari dira nire aburuz eta kontuan hartu behar da ni nahiko kritikoa naizela" (Unai Elorriaga)

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
 Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua
 Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
 Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

- Zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate
- Aldizkariako batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
- Kazetariak:** edurne begiristain, josune velez de mendizabal, saioa fdz. de arangiz
- Argazkiak:** edorta sanz
- Bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate
- Testuen zuzenketa-orrasketa-osaketak:** estitxu breñas glz. de zarate
- Itzulpenak:** edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri
- Maketa:** patirke sanz eta david alvez
- logoa:** io grafix
- komikia:** iñigo sarasola
- Kolaboratzaileak ale honetan:** jose juis garcia de falces (nabarralde), 'euskal herriari bai' herri ekimena, maite lekue, jon zubiaur, txabi arnal, erlantz urtasun, iñaki zorrakin eta gamarrako ostalaritza eskola.
- Publizitatea eta Banaketa:** edurne begiristain
- Publizitate arloko laguntzailea:** maite lekue
- Sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
- Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
- Ale kopurua:** 2.500
- LG:** VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



JOSE LUIS GARCIA DE FALCES NABARRALDE

Guztiok lokatz beretik sortuak

Gu guztiok lokatz berarekin egindako izakiak gara, baina kultur molde desberdinetan egositakoak; molde guztiak ohoragarriak dira, eta hizkuntz desberdinak hitz egiten ditugu, guztiak ere errespetagarriak. Funtsezko ideia da hori, Lurrean bizi diren jende eta kultura guztien aniztasuna bezainbestekoa. Mundu bakuna, uniforme, berdina, diktadore baten ametsa baino ez da.

Espainiar Estatuaren historiako gorabeherek ere gizakiari erronka egin diete. Garai hauetan pertsona guztienganako ulermena eta tolerantzia eskatzen zaigu, oso desberdinak izan arren, garen heinean, guztiok baitugu Lurrean eta egokitu zaigun edo gure borondatez, inork ezarri gabe, aukeratu dugun kultura eta fedean bizitzeko eskubidea.

“Gizaki guztiak –dio Robert Frostek– libre jaiotzen dira, gutxienez desberdin izateko eskubidean. Hala ere, pertsona batzuk gizartea homogeneizatzen saiatzen dira. Artean, politikan edo bizitzako edozein alderditan parekatu nahi gaituztenen kontra nago. Esne-gaina harrotzea nahi dut”. Eta gu, euskaldunok, homogeneizazioaren kontra gaude, poeta estatubatuar hori jaiotzen baino askoz ere lehenagotik gainera.

Borondate horrek aske izaten jarrai dezan, gizaki guztiok askatasuna bermatuko duten erakunde batzuk sortu behar ditugu. Ez bere burua aberriaren babesle gorentzat duen pertsona bat edo estatu ahalguztidun bat.

Ez dizkiogu gugana etorri nahi duen edo gugandik beste nonbaitera joan nahi duen inori mugak jarri nahi; aitzitik, beste herri batzuekin batera lan egin nahi dugu, guztiontzat hobe eta bidezkoagoa izango den mundua lortzeko.

Ez diogu inori bere sustraiei uko egiteko eskatzen. Bere jaioterriko sustraiekin leiala den pertsona baino ez da leiala izango bizitzeko aukeratu duen herriarekin. Herri honen sustraiak ezagutzea nahi dugu eta une honetan bizi-arazo bat duela ikusaraztea edo, besterik gabe, euskaldunok penintsularen eta kontinentearen barnean euskaldun izaten jarraitu nahi dugula ulertaraztea. Europako herri zaharrenak bizirik jarraitzeko eskatzea gehiegi eskatzea al da?

Eta zer esan nahi du euskaldun izateak? Bada, euskaldun izateak gure kultura eta gure hizkuntza gordetzea esan nahi du, guztion berdintasuna bermatu izan duen tradizioari eustea, eta aurrerakuntzen eta etorkizunaren aurrean bide demokratikoa irekita izatea. Hau da, gure kulturak eta gure hizkuntzak, gizakiak Lurrean izandako historiaren emaitzak biak, gainerako hizkuntzek besteko errespetua merezi dutela esan nahi dugu, eta desberdintasun horiek zibiltasunari egiten dizkieten erronka naturalei aurre egin behar diegula errealitatearen zentzuari eutsiz eta tolerantzia zibilizatua errespetatuz.

Ikus dezakezue, horrek ez dio inori kalterik egiten; baina

errealitate horrek espainiar Estatuako herriek eta, bereziki, Euskal Herriak –borroka honetan urte luzez aritu denak– urte askotan jasan duten zentralismo intolerantea haserretzen du.

Eta zergatik izan behar ditu Euskal Herriak foru bereziak? Euskaldunok milaka urtetan lurralde honetan bertan bizi izan gara, inoren menpe egon gabe. Beste herri batzuen moduan hasi ginen, inolako egitura politikorik gabe, beste garai batzuk baitziren. Baskonian elkarrekin egon ginen, (vascones izena eman zieten erromatarrek lurralde hauetako biztanleei), Nafarroako Erresuman ere bai, eta eskualde hauetan bizi izan gara, muga berezietan eta herri bat garen kontzientziarekin. Eskualde euskaldun hauek Europako inperio handien indarraren eskaerei men egin behar izan zieten esparru politikoan eta, beraz, premia eta bizitzeko behar ugari zituztenez, beste erresuma batzuekin hitzarmenak egin behar izan zituzten. Garai haietan herri txikiak, eta Euskal Herria txikia zen, arrisku handiei egin behar zieten aurre eta, batzuetan, ezkontzeko zegoen alabaren dotoretzat lur-zati bat eta bertan bizi zen jendea emateko ohitura zegoen, menperatutako herriaren iritzia edo borondatea alde batera utzita, jakina.

Askatasuna, baita besteena ere, euskaldun demokratontzat zoragarria da, euskaldunak ondo baitaiki askatasunak luze irauteko besteen askatasunarekin elkartasuna adierazi behar duela.

Hala, bada, esparru kulturalen, gure hizkuntza zaharrak gure herriko eskoletan, administrazioan eta justizian bizirik jarraitzeko eskubidea izatea nahi dugu, eta kultura hedatzeko bide izatea nahi dugu, gaztelania bezalaxe.

Gure eskubidea aldarrikatzeagatik espainiarren kontrakoak eta separatistak garelako digute, baina benetako separatistak euskaldunon kontra gogor egiten dutenak dira, egunero ikus daitezkeen ekintzen bidez. Eta euskaldun batek gogor erantzuten duela ikusten duzunean, jabetu zaitez aspaldiko zauriaz hitz egiten ari dela. Guk ez dugu inor menperatu, gu menperatu eta iraindu gaituzte; horregatik, gure eskubideen defentsa horrela egiteko arduradun bakarrak euren gehiegikeriak eta etsaitasuna eskaini dizkiguten horiek dira.

Herri guztiak mundu integratuz goaz, poliki, baina noranzko horretarantz. Baina ez da garaileen eta garaituen arteko integrazioa. Euskaldunok Europako gainerako herrien ondoan izango gara beti, adiskidetasunezko harremanak ezarri baititugu horiekin, hala, herrien Europa osatzeko, muga ekonomiko, sozial edo politikorik gabe eta nazionalitateen eta eskualdeen duintasuna errespetatzeko beharrezko subiranotasunean oinarrituta.

Hori da elkarrekin egoteko eta bakoitzak bereari eusteko bide bakarra, bizikidetzat demokratikoan eta gizaki guztienganako errespetuan, gure seme-alabek eta haienek ezagutu ahal izango duten askatasunarekiko elkartasunean.



EHNA

EUSKAL HERRITARRAK EZ GARA INOR BAINO GEHIAGO; BAINA GUTXIAGO ERE EZ!

Gure Euskal Herria, herri txikia da; umila, langilea eta esku-zabala. Baina era berean, bizi eta garatu nahi duen herria. Gaur egun, bizi- bizi dagoen herria izanik ere, Euskal Herriaren etorkizuna kolokan ez dagoela esatea, astakeria galanta litzateke.

Garai latzak bizi izan ditugu gure herri zahar honetan. Garai gordinak eta gogorak euskal herritar ororentzat. Modu batera nahiz bestera izanik ere, gure ama Euskal Herria kolpatzen duten bakoitzean, gutako bakoitza ere kolpatzen dute.

Pasa den urtea oso garrantzitsua zela milaka aldiz esan izan da. Zergatik?

Euskal gizarteak, atzera bueltarik ez duen oinarri bat jarri duelako Euskal Herriko sukaldean. Gaur egun edozein proposamen egosterako garaian, ezinbesteko diren lau osagai jarri baititu:

Euskal Herriaren ONARPENA; Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia, Behe Nafarroa eta Zuberoako lurraldeek osatzen dute gure nazioaren lur eremua.

Euskal herritarren borondatearen ERRESPETUA; euskal herritarrok izan behar dugu, Euskal Herriaren oraina eta geroa erabakitzeko ahalmena.

Euskal Herrian, euskal herritar gisa bizitzeko ESKUBIDEA; gure herritartasuna errespetatu. Euskal herritarrak ez gara inor baino gehiago; baina gutxiago ere ez! Gaur egun espainiar edo frantziar naziotasuna duen oro errespetatua da. Aldiz, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena duena, bere herrian bertan, zapaldu eta ukatua da.

Autodeterminazioa; finean, tresna edo bidea izango dena. Aurreko hiru puntuak oinarri izatea ezinbesteko duen laugarrena da autodeterminazio bezala ezaguturiko formula. Herriaren hitza, erabaki bihurtzeko formula bat.

Bada kalean, Euskal gizartearen gehiengoak bat egiten duen aldarrikapen eta hausnarketa nagusi bat; Euskal



Herria biziko bada, marko politiko berri baten beharra du. Egoera berri horrek aurrez adieraziriko *lau oinarri* erantzun beharko die.

Alderdikierietatik haratago, pauso berri bat jada eman du gizarteak. Milaka eta milaka herritarrek, Euskal Herria onartu, herritarren borondatearentzako errespetua eskatu

eta Euskal Herrian, euskal herritar gisa bizi ahal izateko tresna eskuan du.

Bai Euskal Herriari ekimeneko kideon ustez, herritarren txanda iritsi da. Herritar bakoitzari dagokigu esku hartzea, ikusle paperak soberan dira!

Horregatik, konpromiso berri bat hartzeko deia egiten dizuegu. Modu simple batez, pertsonalki eta borondatea oinarritzat izanik, gure herritartasuna aldarrikatu eta pauso berri bat emango dugu, Euskal Herriaren eraikuntzan.

Euskaldun orok, euskal herritar orok, Euskal Herria onartu eta errespetatzen dugun guztiok, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egin eta gutxinaka-gutxinaka, EHNA erabiliz, euskal herritar gisa bizitzearen bidean pausoak ematera gonbidatzen zaituztegu.

Bidean oztopoak izango dira noski, baina gutako bakoitzak jarriko konpromisoa, ur tanta bailitza ulertu behar dugu. Jada, milaka eta milaka herritarrok ibai zabal bat osatzen dugu eta pausoz pauso, estatuek, Euskal Herriari osturiko lurra berreskuratuko dugu; itsasora arte.

Euskal herritar guztion eskutan dago giltza, herritarren eskura dagoen tresna da EHNA. Has gaitezen herritarrok biltzen, eta guztion artean ibai indartsu bat osatuko dugu. Honela eta soilik honela, lortuko dugu Euskal Herriaren aitortza eta euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatua izatea.

Euskal Herriaren eraikuntzan guztiok gara beharrezko. EHNA EGIN eta ERABILI!

MIKEL LULOAGA EHNA: T2757195R
BAI EUSKAL HERRIARI herri ekimeneko kidea

5 egun. 37 film labur eta 2 film luze. 7.000 euro sarietan. 2 epaitza; publikoarena eta adituena. Hauek izan dira Gasteizko VIII. Film laburren jaialdiaren osagaiak, orain dela 8 urte abenduero Guridi zineman izaten den zinemaldia, hain zuzen. Aurten bi izan dira berrikuntza nagusiak; batetik, Fant-Cortada saila, hau da, fantasiako zinemari buruzko jardunaldia eta bestetik, 3D animazioaren inguruko programazio berezia. Ohi denez, arrakasta ikaragarria izan da.

CORTADA VIII, GASTEIZKO FILM LABURREN JAIALDIA GOGOAN

- 1.- Etorri al zara inoiz Cortada jaialdira?
- 2.- Zer iruditzen zaizu aurtengo programazioa? Zeozer gehitu edo kenduko zenuke?
- 3.- Zure ustez, zergatik izaten du hainbeste arrakasta?



Mari Jose Sainz, langabetua

- 1) Ez, ez naiz inoiz etorri, orain dela gutxi ezagutu dut eta.
- 2) Egia esan, ez dut ezagutzen. Egunkarian ikusi dut eta nolakoa den ikustera hurbildu naiz.
- 3) Ez dakit.



Valentin Arteaga, langilea

- 1) Bai, iaz etorri nintzen behin.
- 2) Ez dut oso ondo ezagutzen. Dagoen moduan utziko nuke.
- 3) Zerbait berria delako izan daiteke.

Elisa Campo

- 1) bai, ahal dudanean.
- 2) Ez dut oso ondo ezagutzen. Informazio gehiago falta dela esango nuke.
- 3) Ekintza desberdina eta merkea delako.




David Martin, ikaslea

- 1) Aurten da lehenengo aldia.
- 2) Oso egokia iruditzen zait, batez ere zinema fantastikoari buruzko eguneko programazioa. Orokorrean esanda, ez nuke ezer ere kenduko.
- 3) Nire ustez, nahiko ezezaguna den mundua da film laburrena. Gorantz ari da, jendearek gustatzen zaio eta laburrak izan arren, kalitate handikoak izan ohi dira.



JON ZUBIAUR, IRUDIGILEA

Jon Zubiaur Gasteizen jaio zen duela hogeita hamabost urte, eta egun Lekeitio eta Durango bitartean bizi da bere emazte eta seme birekin. Arte Ederetan lizentziatua da, pintura berezitasunean, baina aspaldi (umeak etorri zaizkionetik hain zuzen) koardroak baztertuta dauzka eta lan grafikoan jarduten du, grabatua eta irudigintzan, batez ere. Marrazki-irakaslea da ogibidez, Gasteizko "Niño Jesús" ikastetxean aurten, eta hainbat argitalpenetan ikus ditzakegu bere marrazkiak.



Euskal pilota. Larrua harriaren kontra

MAIDER OLEAGA, elkarrizketa-egilea:

“Dokumental
honek begiak apur
bat irekitzeko
balio du”

edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz & artxibo

Euskal pilota. Larrua harriaren kontra Julio Medemen dokumental ezagunaren elkarrizketa askoren egilea dugu Maider Oleaga. Bilbon jaio baina Gasteizen bizidun 27 urteko neska hau “harro” sentitzen da halako lan batean parte hartu izanagatik.

- Zer dela eta proposatu zizuten Julio Medemen pelikulan lan egitea? Nolatan jarri ziren harremanetan zurekin?

Koldo Zuazo produktorea Madrilen ezagutu nuen, Zine zuzendaritza ikasten ari nintzela, bera produkzioa ikasten ari baitzen. Berak Julio ezagutzen zuen, eta dokumentala egitea proposatu zioenean, nirekin gogoratu zen. Halaxe izan zen.

- Esperientziarik ba al zenuen halako filmetan?

Ikus-entzunezko komunikazioa eta zuzendaritza ikasi ditudan arren, inoiz ez nuen dokumentalik egin. Baina lan honetan beti zaude gauza berriak egiten, eta kasu honetan dokumentazioa eta elkarrizketak egitea egokitu zait.

- Zein izan da zehazki Euskal Pilota pelikulan egin duzun lana?

Hasiera batean dokumentazio lana egin nuen, hau da, Juliok zenbait elkarrizketaren izenak pasa zizkidan beraien bizitzari buruz gauzak bila nitzan, dokumentatu nendin. Baina

beste alde batetik, jende gehiago bilatu behar nuen elkarrizketatzeko, alor desberdinetako jendea. Dokumentazioa biltzeko lana oso handia izan zen, euskarazko elkarrizketak ere egin nituen, baita gaztelarazko beste batzuk ere. Gero, filmaketa bukatu genuenean garbiketa prozesu bat egiteari ekin genion. Alegia, baziren zenbait elkarrizketa ordubete edo gehiago irauten zutenak, orduan elkarrizketaren zati garrantzitsuenak atera behar genituen, euskarazko elkarrizketak moldatu...

- Zenbait elkarrizketatu zeuk aukeratu behar izan zenituen?

Batzuk bai. Interesgarriak izan zitezkeen pertsonak bilatu behar nituen, batik bat kultura arlokoak. Juliori proposatzen nion eta berak gustuko bazuen, aurrera, bestela ez. Batzuek ere ezetz esan ziguten...

- Nortzuek esaterako?

Arzak eta Argiñanok, kirolari batzuek, Martxelo Otamendik... jende askok esaten zigun ezetz.



MAIDER OLEAGA

- Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Iruñean. Eta Madrilen Zine Zuzendaritza 3 urtez.

- Bi film labur zuzendu ditu:

- La muerte de Sardanápalo. Betacam. 2000
- Sarah (Mirándote). 35 mm. 2001

- 2003an beste film labur bat egin zuen, baina estreinatzeke dago: El coincidencia.



- Zein argudio ematen zuten ezetz esateko, bada?

Gehienbat gai politikoa zelako ematen ziguten ezezkoa. Luzamendutan ibiltzen ziren, eta azkenean ezetz esaten ziguten. Fernando Savaterrek eta mundu horrek guztiak hasieran baietz esan zigun, Julio Medem zelako, baina gaia jakin zutenean atzera egin zuten.

- Galderak prestatzeko orduan, nola egiten zenuen, zein irizpide erabiltzen zenituen?

Juliok berak azaldu zigun zer kontatu nahi zuen dokumentalarekin. Berak euskal identitateari buruzko zerbait egin nahi zuen, gai hori aztertu nahi zuen, gatazka politikoaren sustraiak, arazoa nola dagoen... Hortik hasita pentsatu behar duzu zein galdera egin... Nire elkarrizketak kulturalak edo antropologikoak izan ziren, politikoak bainoago. Hala ere, politika arloko bospasei galdera beti egiten nituen: su-etenari buruz, hauteskunderi buruz, autodeterminazioari buruz...

- Ehun pertsona baino gehiago zirela kontuan hartuta, elkarrizketatu guztien dokumentazioa bilatzea lan neketsua izango zen...

Bai, gainera elkarrizketak oso ongi prestatu behar genituen. Nire elkarrizketetarako asko prestatu nuen neure burua, errespetu handiarekin joaten nintzen elkarrizketak egitera...

- Elkarrizketen emaitzekin gustura geratu zinen? Nola joan ziren?

Oro har nahiko ongi, azkenean gozatu ere egin nuen. Agian okerrean kirolariei egindako elkarrizketak izan ziren: Iñurategiri, Olanori, eta Perurenari, besteak beste. Beraiek ez baitziren oso ongi sentitzen politikaz hitz egiten. Nik ulertzen nuen, dena den. Besteekin oso ongi, asko laguntzen zidaten. Lehenengo elkarrizketa Fermin Muguruzarekin izan zen, eta berak asko erraztu zidan lana.

- Norbait kanpoan geratu al da, alegia, elkarrizketatu nahi baina azkenean ezin?

Bertsolariak elkarrizketatu nahi genituen, baina azkenean soilik Euzkitzeri egin genion. Egaña eta Sarasuaren inguruko informazio asko bilatu nuen. Sarasua oso tipo interesgarria iruditu zitzaidan, baina azkenean ezetz esan zigun, elkarrizketa hori astebete prestatzen eman eta gero. Txillardegik ere ezetz esan zigun, eta horrek pena eman zidan.

- Zenbat denbora eman zenuten dokumentala prestatzen?

Ni iazko martxoan hasi nintzen lanean, dokumentazioa bilatzen eta abar. Apirilean Donostiara joan ginen errodajea hasteko eta elkarrizketak egiteko. Elkarrizketak bukatu ostean post-produkzioa edo lan garbiketari ekin genion. Izan ere, elkarrizketa ugari zeuden, eta asko oso luzeak ziren. Uda guztia elkarrizketak irakurtzen, eta aukeraketak egiten eman genuen. Eta gero Julio bera bakarrik hilabete asko egon da muntaia egiten. Lan izugarria izan da, material asko zegoelako.

- Elkarrizketatuen erantzunen aukeraketa egitea ez zen lan samurra izango, ezta?

Ez, baina ez zegoen beste aukerarik. Dokumentalean antzematen da moztuta dagoela, soilik segundu batzuk irabaztearren. Filmak bi ordu inguru irauten du, eta gauza asko geratu da kanpoan. Dokumentaletik at geratu diren gauza interesgarri asko liburu batean, ETBko telesail batean eta DVDan ikusgai daude.

- Filmaren azken emaitzarekin gustura geratu zara?

Bai, oso harro nago, bai nire lanarekin, bai guztion lanarekin. Lan oso berezia izan da, Julio oso ausarta izan da hau egiten, eta guztiok egon behar dugu eskertuta berarekin.

- Zeozertarako balio dezakeela uste duzu? Askok diote elkarrizketarako dei bat dela.

Bai, bereziki kanpoan. Niretzat garrantzitsuena da Euskal Herritik kanpo ikustea. Lehenik eta behin Espainian, jende askok ez baitaki hemen zer gertatzen den, jendea oso baldintzatu dagoelako, beraz, dokumental honek begiak apur bat irekitzeko balio du. Espainiatik kanpo ere ikusiko da, jadanik Londresen, Belgikan eta toki gehiagotan izango da. Niretzat oso garrantzitsua da hori, eta horregatik egin nuen, nik Euskal Herriarekiko sentitzen dudana amodioa besteei oparitzeko, ikus dezaten Euskal Herrian guztiok ez garela hiltzaile batzuk.



artxibo



artxibo


Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiatua.

Horixe duzu gure konpromisoa.



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

JUAN IBARRONDO, "Vivos, muertos y viajeros" liburuaren egilea

"Gasteiz erreferentzia izan zen Euskal Herri guztian"

edurne begiristain
argazkiak: edorta sanz

80ko hamarkadako giro nahasi eta oparoan kokatu du Juan Ibarrodok *Vivos, muertos y viajeros* (Biziak, hilak eta bidaiariak) bere lehen eleberriko kontakizuna. Garai horretako oroimena berreskuratzeko balio duen liburua dela dio, eta ez atzera nostalgiaz begiratzeko.



Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

GEU ALDIZKARIA
IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!!
TFNOA: 945 22 21 53
GEUGASTE@GRN.ES

- Zure lehen liburua da *Vivos, muertos y viajeros*. Zerk bultzatu zaitu idaztera?

Batetik, nire buruarekin nuen zor bat zen, 80. hamarkada oso inportantea izan zelako nire bizitzan. Bestalde, garai harekiko nuen zorra ere bada, historikoki nahiko goiz izan arren, gutxi oroitzen dugulako. Baina nik nahiko interesa antzematen nuen gazteengan garai haiek nolakoak izan ziren jakiteko, euskal rock erradikalaren hastapenak, Gasteizko mobida... Nire ustez, garai hartako oroimena berreskuratu egin behar zen, eta kronika historiko bat egin gabe, garai hartako nire ikuspuntu partikularra eman dut, modu literario batean azalduta. Eta badago prosaikoagoa den beste arrazoi bat, 13 urtez liburudenda batean lan egin ostean eta horrenbeste liburu irakurrita, idazteko gogoia ere sortzen delako.

- Liburuko kontakizunek liburuaren izenburuarekin zein lotura dute?

Batetik, 80. hamarkadako kronika bat da, Euskal Herriko kontakizunak, bereziki Gasteizen gertatutakoak, baina baita beste toki batzuetakoak ere. Bestalde, bidaia ipuinak daude, hemendik kanpora joandako jendearenak, bereziki Hego Amerikara eta Marokora alde egin zuen jendearenak. Gasteiz oso txiki geratu zitzaigun, eta jende askok estutasun horretatik ihes egin zuen. Baina baziren beste lagun asko beren buruaren baitan bidaiatu zutenak, drogen bitartez. Droga kontrolik gabe hartu zen, informazio gutxi geneukan..., orduan hasi zen HIESa, eta bidaia horien ondorioak sarritan zorigaiztokoak izan ziren. Eta hor legoke liburuaren hirugarren atala, hildakoak, bidean geratu zirenak. Nik horiek guztiak omendu nahi nituen, bidean, heriotzan, kartzelan edo erotasunean harrapatuta geratu ziren horiek, historiaren parte izan zirelako.

- Hamarkada horretan Gasteizen bizi zen giroaren eta Euskal Herriko beste herriakoen artean desberdintasun asko zeuden?

Bai. Gauza asko genituen komunean, baina leku batetik bestera desberdintasun ugari ere baziren. Euskal Herriko hegoaldeak betidanik izan du izaera berezi bat. Nire ustez Gasteiz zutabe



LIBURU FITXA
Egilea: Juan Ibarondo
Argitaletxea: Arabera
Orrialdeak: 145
Salneurria: 12 euro

oso garrantzitsua izan zen, musikarekin esaterako talde asko hemen jaio ziren. Borroka moldeetan ere erreferentzia bilakatu ginen, borroka mota horizontalagoak ziren. Alegia, Gasteiz erreferentzia izan zela Euskal Herri guztian.

- Garai hartan mugimendu desberdin asko jaio ziren, baina haien arteko harremana ere ez zen samurra izan, ezta?

Bai. Noizbait esan dut garai hura 68 berantiar bat bezalakoa izan zela, alegia, energiak askatzeko garaia heldu zitzaigula, gauzak aldatzeko gogoia, bikotetik hasi eta politikaraino. Hala ere, herri mugimenduak gaixotasun batek jota zeuden, ezin gintezkeen elkarrekin egon, anarkoak, 'txinoak', abertzaleak..., gure artean eztabaida asko genituen, baina apurka-apurka gainditzen joan ziren

desberdintasun horiek, zorionez. Gizartea bera kontserbadoreago bilakatu zen, eta elkartzeko beharra izan genuen, gauza praktikoagoak egiteko.

- Erljioarekin sortzen ziren polemikak ere islatu dituzu liburuan.

Ez ginen bereziki erlijioaren kontrakoak, ateoak edo... gure helburua eskandalua sortzea zen, eta hori egiteko modu errazena erlijioa eta jaiak ukitzea zen. Gainera, lortu egin genuen, ikusarazi genien gauzak ez zirela hain sakratuak, kalean esan genezakeela, eta gainera umorearekin.

- Eta drogak? Gazteen artean oso sartuta zeuden heroina eta bestelakoak, ezta?

Hori oso gogorra izan zen, eta oraindik horren ondorioak pairatzen ari gara. Azkenaldian jende asko hil da, Escroto, RIPEko Mahoma, La Polla taldeko batzuk... Orduan guk ez genuen ondorioetan pentsatzen, bestek beste, informazio gehiegirik ere ez genuelako. Hala ere, nik uste ongi dagoela akatsetatik ikastea; ez nago harro, oso ongi pasa genuen, baina geure buruak apur bat zainduz ere oso ongi pasa genezakeen.

- Garai haiek egungoak baino modu intentsoagoan bizi izan zirela argi dago. Atzera begiratzen duzunean nostalgiarik bai?

Nik ez du liburu nostalgiko bat egin nahi izan, ez dut garai hura idealizatu nahi izan, oroitzen baino ez dut egin. Oro har uste dut hura positiboa izan zela, gauzak aldatu zituen haize freskoa izan zen, borrokak ulertzeko modua aldatu zuena, pertsona askok bizitza ulertzeko zuten ikusmoldea ere aldatu zuena, eta ordutik gauzak ez dira berdina izan. Baina ez da zertan idealizatu.

- Zein alde ikusten diozu eguneko eta 80. hamarkadako Gasteizko gazterari?

Hiriak oso kontserbadorea izaten jarraitzen du, modu desberdinean agian; orain kontsumoa, individualismoaren kontserbadorismoa bizi dugu, liberal itxura duena, baina funtsean kontserbadorea dena. Baina gauza asko aldatu genituen, bizitza edo sexua ulertzeko modua esaterako, eta hori ez da aldatuko. Hala espero dut, bederen.

JOSEBA IRIONDO, "Palestina Hotela" liburuaren egilea:

"Irakeko Joseba eta hemengo Joseba bi pertsona desberdin dira"

Oraintxe itzuliko litzateke gerra egoeraren batera albiste bila, nahiz eta Irakeko gudatik duela gutxi bueltatu den. Bertan izandako bizipenak liburu batean bildu ditu ETBko kazetariak: *Palestina Hotela*. Liburua kronika bainoago, gudaren aurkako aldarri bat dela dio.

Iraken hilabete eta erdi ibili zinen, eta han bizitakoak eta sentitutakoak liburu batean bildu dituzu. Zergatik? Zerk bultzatu zaitu liburua idaztera?

Aurreko bidaia batetik, Afganistanetik, etorri nintzenean gauza asko kontatzeko gogoarekin geratu nintzen, eta liburu bat egiteko gogoz, apunteak eta guzti hartu nituelako. Orduan, Iraketik itzuli nintzenean editorialeko arduradunak proposamena egin zidan, eta bi minututan ados jarri ginen.

Afganistanen ere berriemaile gisa ibili zinen. Irakera joatea zuk aukeratuta ala ETBko informatibokoek eskatuta izan zen?

Afganistangoa kasualitate kontua izan zen, norbaiten bila ari zirelako, eta mementoan ez zutelako topatzen hara joan nahi zuen inor. Orduan, nire ametsetako bat gatazka lekuetan informazioa egitea zenez, berehala neure burua proposatu nuen. Beraz, Irakekoa handik zetorren, Afganistanen egonda nintzelako eta gustuko nuela bazekitelako. Nolabait prestatuta nengoen joateko eta ez zen sorpresa izan niretzat.

Halako gatazkak bertatik bertara bizitzeak zerbaitetan aldatu zaitu?

Beti esaten dut han bertan zaudenean pentsatzen duzula halako gauza gogorak ikusi ondoren betirako aldatuko zarela, baina hango Joseba eta hemengo Joseba bi pertsona ezberdin dira, bi mundu desberdin direlako eta mundu bakoitzak bere lekua duelako. Hango miseriak hona ekarri gero martziano bat izango nintzateke, ez dagoelako hango pentsakera ekartzetik. Beraz, pentsatzen dut bi mundu horien artean bereizten jakin behar dela, nahiz eta sakon-sakonean funtsezko aldaketa batzuk geratzen zaizkizun.

Nolako izan da esperientzia? Nola izan zen Irakera iristea, zer sentitu zenuen?

Askotan horrelako bizipenek gogorragoak ematen dute hemendik



ikusita handik baino. Bonbardaketak gogorrek ziren, baina ez genuen beldur handirik pasatu, tentsio handia bai, baina beldurrik ez. Horregatik esaten dut lanbide honek halako mito bat baduela, ez baikara hain ausartak, ez gara beste munduko ezer, arduragabe batzuk izan gaitezke, baina ez beste munduko ezer.

Liburuari Palestina Hotela izenburua jarri diozu. Esanahai berezia hartu zuen kazetariatzat hotel hark?


Izenburu hori jarri diot nolabait ezaguna izan zelako, eta kazetari guztion plato erraldoia izan zelako, lan ere han egiten genuelako. Izenburuarena argi dago, beraz, gauza gogorrenak han gertatu zirelako, Jose Cousoren heriotza esate baterako, eta horrez gain, gure lantokia ere bazelako, kazetariok egon ginen lekua.

Liburuan Iraken bizitakoa jaso duzu, baina baita gudaren gaineko gogoetak ere. Nolabait gerraren kontrako aldarria ere bada.

Joan aurretik eta Nazio Batuen Ikuskatzaileek armak bilatzen zituztenean askok esaten genuen hura gezurra zela. Horregatik, gudaren aurkako aldarrikapen bat da, lapurreta handi bat izan delako, inbasio zentzugabe bat eta jende asko hil duen eraso.

Irakeko eraso iruzur handia izan dela esan duzu. Zergatik?

Alde batetik, arma horien bila zebiltzalako, eta nahi zuenak jakin zezakeelako 98 baino lehen NBEko ikuskatzaileek suntsitu ziotela Iraki arma kimikoak sortzeko Ameriketako Estatu Batuek jarri zioten azpiegitura guztia. Gainera, horrelako industriak ezinezkoa da estatu batek garatzea, mundu guztiko sateliteek egunean mila argazki ateratzen dituztelako.



Horrez gain, arma atomikoena barregarria da, horrelakoak egiten hasiz gero beraiek sortzen dituzten edozein satelitek ikusten dituelako. Hori argi zegoen. Ezkutatuta zegoela? Eta ezkutatuta zertarako eta non? Arma kimikoak yogurra bezalakoak dira, egunero mantendu behar dira, kadukatu egiten direlako. Hiru urtetan ezkutatu gabeko arma kimiko batek ere, nahiz eta basamortu erdian egon, ez du ezertarako balio. Aitzakia horiek erabili zituztelako diot iruzurra izan zela.

Liburuaren azpititularra nahiko deigarria da: Not american; I'm basque. Askotan esan behar izan zenuten hori?

Bai, Afganistanen gauza bera gertatu zen, mendebaldekoak eta atzerritarak izanik guztiek amerikar itxura hartzen ziguten. Joxerrak kamarari ikurrina jarri zion, baina ni ez naiz batere ikurrinazalea edo banderazalea, eta azalpenak eman nahiago dut. Lehenengo galdera beti izaten zen ea amerikarrak ginen, eta guk ezetz, *Not american; I'm basque* esaten genien. Eta horrekin zetorren bigarren

azalpena; gakoa zen *spain* hitza aipatu ere ez egitea, beraiek jakin bazekitelako Espainiaren jarrera zein zen, eta orduan *basque* esaten genuen, eta Frantziako hegoaldean zegoela esaten genien, Espainia ez aipatzearen.

Zer da Irakeko bizipenetatik burutik kendu ezin duzun irudia?

Asko. Garrantzitsuena Cousorena, eta lagun artean hitz egiten hasten garenean horrekin ere malkoak botatzen ditugu, eta irudi hori ziurrenik ez zait sekula ahaztuko.

Une honetan munduko tokiren batean beste gerra bat piztuko balitz, prest egongo zinateke maletak egin eta hara joateko?

Bai, bihar bertan gainera. Niri kazetaritza izugarri gustatzen zait eta gainera ikusten duzu zein intentsoa den lanbidea... Hemen kalean beste eratako informazioa egiten duzu, eta jendeak ez ditu elkarrizketarik egiten, baina horrelako lanekin ikusten duzu jendeak baduela interesa halako gauzekin. Gainera, esker oneko informazioa da, eta aldi berean neuk ongi pasatzen dut, uste dudalako iritsi zaidala unea benetan munduari aldatu behar duela esateko.

JOSEBA IRIONDO

- JAI: Azpeitin, 1969an.
- HAZI: Zarautzen.
- BIZI: Getxon.
- Kazetaritza lizentziatua.
- IBILBIDEA:
 - Euskadi Gaztea-n hasi zen, 1989-1995 urte artean.
 - Madrilen korrespontsal aritu zen, 1996-1999 artean.
 - Egun, albistegietako aurkezle da, 1999az geroztik.
 - Gerrako kazetari: 2001, 2002 urteetan lau aldiz ibili zen Afganistanen. 2003an, Iraken.
- ARGITALPENAK: Palestina Hotela, 2003.
- KIROLA: Surfean Espainiako txapeldunorde izan zen 1987an. Egun, surfean jarraitzen du eta triatlaiak egiten ditu.



Marian Galarraga, TINKOko arduraduna

Zinema euskaraz ahalik eta leku gehienetan zabaltzea da Tinko bikoizketa talde gizpuzkoarraren aspaldiko erronka. Bideari lotuz, Euskal Herriko hainbat zinema-areto komertzialetan proiektatu dituzte film ezberdinak eta lan horretan darraite zinemetako arduradunekin hitzarmenen bila. Gasteizen Mikeldi Zinemak dira alor honetan apustu handiena egiten duen ikus-entzunezko enpresa. Abenduan “Sorgin bat etxean” lau astez izan da karteleran eta izandako arrakasta “oso positibotzat” jotzen dute arduradunek. Urte berriari begira euskarazko zinema eskaintzen eta zabaltzen jarraituko dutela aipatu dute bai Tinko-k, bai Mikeldi-k.

ZINEMA EUSKARAZ, TINKO!

1993-1994 ikasturtean hasi zuen Tinko-k bere ibilbidea. “Aspalditik bikoizle talde batek kezka bat geneukan: zergatik ez ote zen areto komertzialetan zinema euskaraz ikusten?”, azaltzen du Marian Galarraga Tinko Gipuzkoako bikoizketa taldeko arduradunak. Galdera horri erantzuna bilatu nahian mila buelta eman ondoren, proiektua martxan jartzea erabaki zuten, Euskara Zine Aretoetara (EZA proiektua) izenekoa, alegia.

Marianen esanetan, “Urte hartan pilotu moduko bat egin genuen. Ikastetxe guztiei galdeketa luzatu genien, ea prest egongo ziren haurrak zinemara eramateko eskola

orduetan zinema euskaraz ikustera. Erantzuna oso aldekoa izan zen eta lau film prestatu genituen”. Bost mila haur inguru joan ziren filmak ikustera eta izugarriko arrakasta izan zutelakoan, aurrera jarraitzea erabaki zuten Tinko-ko taldekideek; hurrengo ikasturtean, 1994-95ean, 25.000 haurrek ikusi zuten zinema euskaraz eta zortzi urte geroago, 2002-2003an, 82.000 haurrek.

Lehen urteak gogorak izan ziren. “Dirulaguntzarik ez genuen jasotzen, ‘ametsak ez direlako diruz laguntzen’, Instituzioetatik esaten zigutenez”, gogoratzen du Marianek. “1996. urtean Hezkuntza Sailak

eman zigun lehen dirulaguntza. Hortik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta hainbat Udalerrik parte hartzen dute programa honetan”. Laguntzen artean, Marianek azpimarratzen du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egiten duen ahalegina, filmak euskaraz estreina daitezten.

Tinko-k bide berria ireki dio euskarari, zineman pausoz pauso finkatzen joan dadin, orain arte bezala lanean jarraitzeko asmoa baitu taldeak: “Helburua oso argi dugu: Euskal Herriko haurrek, hemen estreinatzen diren film guztiak euskaraz ikusteko aukera izatea”.

Bacalao Giraldo



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



Marian Galarragarekin zuzenean:

Zinema euskaraz proiektatzeko zein da Tinko-k daukan filosofia edo lan egiteko politika?

Film familiarrak eta haurrentzat bilatzen ditugu mundu osoan zehar. Horretarako ekipo ederra osatzen dugu. Londresen lankide bat dugu, beste bat Suitzan eta bestea Los Angelesen (Kalifornian), donostiarrak denak eta zinema munduarekin harremanetan daudenak beren lanbidez. Jakiten dutenean guretzat egokia den film bat egin dela, datuak pasatzen dizkigute eta gu jartzen gara harremanetan film horren jabeekin, eskubideak lor ditzagun euskaraz bikoiztu ahal izateko. Beste modu bat, Donostiako Zinemaldia-rekin eta Fantasiako Zinemaldia-rekin bat egiten dugu elkarrekin filmak aukeratu eta estreinatzeko. Eskubideak lortzen ditugunean, ondo bikoiztu, oso garrantzitsua guretzat.

Zein da gaur egun euskarazko zinemak pairatzen duen egoera?

Okerrago egon gara. Nire ustez bide onetik goaz. Oso mantso bada ere. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ahalegin handia egiten du filmak diruz lagunduz euskaraz estreinatu ahal izateko. Gero eta film hobekiak ikusten ditugu areto komertzialetan, baina oraindik asko falta da; adibidez, Disney eta Warner-ek estreinatzen dituztenak. Oraingoz horiek ezinezkoak dira, baina ez dugu itxaropena galtzen.

Noizbait horiek ere euskaraz ikusiko ditugu, ikusleek horrela eskatuko dutelako.

Orain arte zeintzuk zinema-aretoekin aritu zarete? Hitzarmenik lortu al duzue?

Zinema-aretoekin une honetan ez dago inongo arazorik; duela gutxi bilera izan genuen enpresariekin eta denak prest zeuden filmak euskaraz jartzeko.

Tinko-n normalean Donostiako SADE, Gasteiz eta Bilboko MIKELDI eta Iruñeko GOLEM zinemekin aritzen gara gehienbat, eta hauekin dugu asmoa hitzarmena egiteko. Hitzarmena izango litzateke, beti areto batean film bat euskaraz ikusteko aukera ematea, asteburuetan eta oporretan hilerio film berria estreinatzea eta gutxienez lau asteburutan egotea.

Etorkizunera begiratu zein planteamendu egiten du Tinko-k?

Tinko-ren helburua etorkizunerako hau da: Euskal Herrian estreinatzen diren film guztiak, gutxienez haur eta gaztetxoei zuzendutakoak, euskaraz ere ikusteko aukera izatea.

Gasteizen Mikeldi-rekin elkarlanean aritzen zarete, zer-nolako tratua daukazue?

Mikeldi-koekin dugun harremana ezin hobea da. Beti prest daude laguntzeko eta ez bakarrik ordutegi komertzialetan, eskola ordutetako programa ere beraiekin egiten dugu eta ez dugu inoiz arazo txiki bat ere izan.

TINKOREN IBILBIDEA

TINKOk bere ibilbidea martxan jarri zuenetik, duela hamar urte, honako FILM HAUEK BIKOIZTU DITU ZINEMA-ARETOETARAKO:

- ALARGUNEN GAILURRA (El pico de las Viudas)
- HAUR LEHOIA (El niño león)
- KORINA KORINA (Corina-Corina)
- ANNA - ANNA
- WALLACE & GROMIT I
- WALLACE & GROMIT II
- CHARLIE & LOUISE
- GEZI URDINA (La flecha azul)
- AUZOKO ANIMALIAK (Qué vecinos tan animales)
- KEMENTSUA (Un mundo a su medida)
- ANGUS (El gran peque se va de ligue)
- MARTINA ETA XAGUTXOAK
- ANTXETA ETA KATUA (La gaviota y el gato)
- MURIELEN EZKONTZA (La boda de Muriel)
- JO TA KE (A por todas // Bring it on)
- RUDY TXERRI AZKARRA (El cerdito corredor)
- ERREBELDE BATEN EGUNKARIA (Diario de un rebelde)
- JACK, AMAZONASKO ERREGE (Rey del amazonas)
- SORGIN BAT ETXEAN
- PROP ETA BERTA

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILAK EGINDAKO DEIALDIAREN BIDEZ TINKO-K BIKOIZTUTAKO FILMAK:

- JAIZKIBEL
- BALOIA
- ETXALDEKO ERREGEA
- ADARBAKAR TXIKI
- CHRISTMAS CAROL
- BODY TROPERS / GORPUTZ GUDAROSTEAK
- EMIL & DETEKTIBEAK
- ANNALUISE & ANTON
- OLENTZERO
- CHIHIREN BIDAIA

TINKO-K ETA ZINEMALDIA-K BIKOIZTU FILMAK

Zazpi urte daramate Zinemaldia-rekin batera filmak bikoiztu eta Belodromoan proiektatzen. Urtero bat. Aurten bi izango dira:

- CHIHIREN BIDAIA (El viaje de Chihiro)
- SPYKIDS / Haur espioiak

Aurreko urteetan bikoiztutakoak:

- ASTERIX ETA OBELIX
- ROBIN HOOD-EN ABENTURAK
- BIG
- CHICKEN RUN / Oilasko ihesa (Evasión en la granja)
- BANPIRO TXIKIA (El pequeño vampiro)
- BORROWERS
- PINOTXO

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea. Arabako batzordea



Jose Ignacio Vegas Aranburu, liburuaren egileetako bat

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide diren sei lagunek idatzi dute liburua. Jose Ignacio Vegas da, hain justu ere, liburuari hasiera ematen diona: "Arabako historiak hitz egingo zuen liburuari nondik ekin eta denon artean erabaki genuen historiaurrera jo behar genuela, baina orduan beste arazo bat planteatu zen: indusketen bidez aurkitzen duzun edozein gorpuk ezin dizu garai hartako iritzirik eman. Hortaz, Domingo Fernandez Medrano hautatu nuen, Arabako arkeologian aitzindari izan zena".

Historiaurretik abiatuta XX. mendera arte, Araba herrialdeko historiaren ibilbidea bildu du Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea-k liburu batean. Garai horietan bizi izan ziren pertsonaien bitartez kontatzen da azken argitalpenean mendez mendeko Arabako historia. "Ez da aipatzen printze edo errege baten ikuspegitik, baizik eta urte horiek bizi izan zituzten pertsonaia berezien ikuspegietatik, horien gertakarien arabera orduko bizimodua eta egoera islatzen dela", nabarmentzen du Jose Ignacio Vegas Aranburu elkartekideak.

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago
pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

"ARABAKO HISTORIA BERE PERTSONAIEN BITARTEZ" LIBURUA

"La historia de Álava a través de sus pesonajes"

Jose Ignacio Vegas

Hogeita bi urte pasa dira Jose Ignacio Vegas lehendabiziz Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sartu zela. "Ez nuen imaginatzen horrelako elkarte existitu zitekeenik, ia kasualitatez ezagutu nuen", aipatzen du Vegasek. Kultur ekintzekin betidanik harremana izan duela, Jose Ignaciok beharrez utzi behar izan zion koadroak margotzeari. "Gaixo jarri eta horrela esan zidan medikuak", dio. Orduan pintura klaseak ematea otu zitzaion, eta hortik arte kritikaria izatera pasa zen. "Baina orduan ere sortu ziren nire lehen arazoak -nabarmentzen du. Arteaz irakurtzerakoan hitz tekniko ugari zeuden, nik ulertzen ez nituenak. Lehendabiziko arte adierazpenak paleolitikoan izan ziren eta hortaz, horren inguruan dokumentatu beharra neukanez, laguntza eskatu eta arkeologo talde batekin harremanetan jarri niduten; Armando Llanos euren artean, arkeologo taldeak arkeologia ikastaro bat antolatu zuen eta ni apuntatu nintzen; 1.969. urtea zen, orduan harrapatu ninduen indusketen munduak eta gaur arte". Jose Ignacio Vegasek 20 bat indusketa egin ditu orain artean eta berak dioen bezala, "herri hau, gure herria, maite dudanez indusketetan ikertutakoa gehitu nion elkarteari".

Pertsonaiak

DOMINGO MARTINEZ MEDRANO (Jose Ignacio Vegas Aranburuk idatzitakoa)

Jose Ignaciok liburuari hasiera emateko, batetik, Domingo Fernandez Medranok Arabako arkeologian eginiko aurkikuntza handiagatik eta, bestetik, berarekin izan zuen harreman pertsonalagatik hautatu zuen. "Esaterako, Barandiaran edo Prestamerori buruzko ibilbideak dagoeneko jasoak daude eta Domingok, nahiz eta Arabako Errioxan dauden trikuharri gehienak aurkitu eta ikertu, orain arte inork ez du idatzi utzi zigun ondareaz". Jose Ignaciok gogoratzen du Domingorekin partekatutako adiskidetasuna eta lana, baita bere heriotza ere. "Asko partitu nuen berarekin bai museo bai indusketetan. Bere bizitzaz idaztea erabaki nuenean Sancho Jakitunaren Fundaziora jo nuen, bera bertako buletinaren fundatzaileetako bat izan zen eta, baina harriduraz ikusi nuen ez zegoela Domingori buruz ezer idatzita. Egunkariak ere guztiak irakurri nituen -azpimarratzen du Vegasek. Ez nuen gogoratzen zein urtetan hil zen eta hilerrira joan behar izan nuen fitxategian begiratzera". Arkeologi museoko zuzendaria izan zen Domingo Fernandez bere fundaziotik bere heriotzeraino. Jose Ignaciok dienez, "egin zuen guztia egin eta gero inor ez bada bere bizitzan egin zuena biltzeaz arduratzen, existitu ez balitz bezala izango da. Hortaz, liburu honetan bere ibilbidearen lehen ukituak besterik ez ditut adierazi; hau abiapuntua da eta inolaz ere ez bukaera. Berak liburu oso bat merezi baitu".



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073



XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ



Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 beheak - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30



RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta
kotoizko ehunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

**LORENZO DE PRESTAMERO Y SODUPE.
BASCONGADAREN ZERBITZURAKO
ILUSTRATUA**

(Carlos Ortiz de Urbina)

Geografia eta Historian lizentziatua den Ortiz de Urbinak Lorenzo de Prestamero y Sodupe elizgizonari buruzko bizitzaren pasarte adierazgarrienak jaso ditu atal honetan.

Urizaharran jaioa, Gasteiza etorri zen 1.772. urtean Prudentzio Deuna ikastetxeko filosofia, gramatika latina eta teologia irakasle. Urte horretan bertan Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen kide egingo da. Ikasketetak gogoko zituen apaiz honek ondare aberatsa utzi zuen elkartean, besteak beste, eta adibide bat besterik ez dela egindako beste gauza askoren artean, Arabako historiaren zale amorratua izanik nekazaritza batzordeko partaide izan zen eta herrialdean ziren 600 landare mota ezberdinen bilduma egin zuen, "Historia natural" izeneko zazpi liburukitan.


**ARABARI BURUZKO BEGIRADA ARRAGOA.
BIDAIARIEN BEGIETATIK AGINTARIEN DISKURTSORA,
XVII. MENDEA**

(Alberto Angulo Morales)

Euskal Herriko Unibertsitatean Historia Garaikideko irakasle dugun Alberto Angulok XVII. mendean Araba zeharkatu zuten bidaiarien iritzi eta ikuspegitik jorraturiko historia landu nahi izan du. Bertan aipaturiko deskribapen askok paisaiari buruz jardun dute. Hala nola, Arabaz dio elkarren ondoan herri ugari dituen lurra dela, edota Gasteiz hiri alai baina ez oso handia dela ere nabarmentzen da, besteak beste. Anguloren idatzian bidaiariak aduanariei egiten dieten arreta nabaria da; aduanariak lapur ofizialtzat hartzen ziren XVII. mendean.

**VALENTIN DE FORONDA
(Jose Maria Ortiz de Orruño Legarda)**

Jose Maria Ortiz de Orruño EHUko Historia Garaikideko irakasleak Valentin de Foronda (1751-1821) gasteiztarraren ibilbide intelektuala, politikoa eta bere biziera bildu ditu kapitulu honetan. Liberala oso, gizarte gizatiaragoa eta hobea amets zuela eta batik bat ekonomia politikoan interesatua, bere bizitzan egindako amaigabeko gauzen artean, Valentinek gobernuen aberastasunak nola areagotu ere ikertu zuen. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen kidea ere izan zen 1776. urtean. Bere bizitza osoan zehar idatziriko lan bilduma prestatzen ari zela hil zen 1821. urtean Iruñean, tupustean.



**ON PEDRO LOPEZ DE AYALA
KANTZELARIA
(Cesar Gonzalez Minguez)**

Euskal Herriko Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako katedradun Cesar Gonzalez Minguez Araban izan zen Berant Erdi Aroko krisialdiaz mintzatzen da liburuan, On Pedro Lopez de Ayala Kantzelaria abiapuntu harturik (1332-1407). Kexaan (Araba) jaioa, garaiko intelektual bat zen Pedro de Ayala. Ikastea eta hezitzea gustuko zuen kantzelaria izanik, bere zaletasunak poeta, garaiko kronista, diplomatikoa eta obra klasikoaren itzultzailea izatera bultzatu zuen.

**TOMAS ALFARO. HISTORIA ETA
BIOGRAFIA XX. MENDEAREN LEHEN
ERDIAN
(Antonio Rivera)**

EHuko Historia Garaikideko irakasle Antonio Riverak, Tomas Alfaroren ibilbidea aitzakiatzat harturik, XX. mendeko lehenengo erdiaren gertaerak jorratzen ditu. XX. mendean gauzaturiko aldaketa askoren isla baita Tomas Alfaro jauna. Liburu asko idatzi dira pertsonaia honi buruz eta Gasteizek ere, margolarien izeneko auzoan dauka gizon honi eskainiriko kalea. Hala ere, Alfaro, margolaria izateaz gain, beste hainbeste lanbideren itxura ere hartu zuen bere bizitzan barrena. Artista izena margoari, eskulturari eta konposaketa musikalei zien atxikiagatik datorkio. Bere aitaren lanbideari jarraituz oihergintzako enpresari ere izan zen, baita garaiko kronista, Gasteizen egon zen lehendabiziko zineklubaren fundatzaile eta Alaves futbol taldearen estadioaren eraikuntzan partaide ere.



adaka M
madinabeitia

Floridako altxorra!
35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

saioa fdz. de arangiz • argazkiak: edorta sanz & bagare



Txus Argote, Bagare-ko ordezkarria

Bagare,

euskal tokia

1 988. urtean Gasteizko lagun batzuek euskaldunon topaleku izango zen leku erreferente baten beharra ikusi zuten. Horretarako, ekintza desberdinak antolatu eta dirua bildu zuten. Modu honetan sortu zen Bagare Euskal Tokia, euskara modu desberdinetan bultzatzea helburu duen taldea, alegia. Hiru dira euskara elkarte honek hasieratik zehaztu zituen ardatzak; batetik, bazkideen topagune izatea, euren bilerak, afariak eta ekitaldiak garatzeko lekua, hain zuzen. Bestetik, Gasteizko euskarazko mugimendu kulturala piztu nahi zuten, garai hartan hirian euskaraz aurrera eramaten ziren ekintzak urriak zirelako. Azkenik, Gasteizko eta Arabako euskalgintzan koordinazio guneak eta loturak estutu nahi zituzten eta Euskal Herri mailan hizketakidea izatea lortu nahi zuten.

Egun, 140 lagun inguru dira elkartearen

bazkide; hala ere, Bagare jende orori irekita dagoen gunea da. Bagare Euskal Tokiko ordezkarria Txus Argotek argi asko utzi nahi izan du zehaztapen hori eta ildo horretan, "euskaldunon partehartzea eta inplikazioa" eskatzen du. "Jendeari esan nahi diogu topaleku bat izatea garrantzitsua dela, hemendik lan asko egin daitekeelako eta proposamenak, kezkak eta ideia berriak entzuteko prest gaude", gaineratu du.

Askotarik ere, hala nola, ekitaldi kulturalak, kontzertuak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak, bertso afariak eta abar. Baina hiritik at egin direnak ere makina bat izan dira, mendi irteerak eta 'Oporrak euskaraz' programazioa, kasu. Aipagarria da, esaterako, elkartek Bai Euskarari kanpainaren barnean Gasteizen antolatu

festa. Guzti-guztiak helburu komun batekin: hirian euskara bultzatzea.

Tabernaren garrantzia

Hasiera batetik tabernak bete duen funtzioa ezinbestekoa izan da. Argotek dioenez, "taberna zabalik egoteak jende askori hurbiltzeko aukera eman dio". Tamalez, orain dela bi urte t'erdia, 2001eko otsailean, arazo larria suertatu zen eta bertan egiten ari ziren obretan, kontratistak diru mordoarekin ihes egin zuten. Gauzak horrela, taberna ez irekitzeko planteamendua egon zen, baina azkenean, "leku ireki" bat izatea beharrezkoa zela ikusi zuten. Beraz, elkartearen zeregina handia zen, baita proiektua aurrera ateratzea nahi zuten guztien ere. Honela, bakoitzak ahal izan zuten moduan lagundu zuten; batzuek dirua jarriz, bestek laguntza fisikoa emanez. Guztira, 50 pertsona

IRVSTA **TABERNA**
 poteo eta pintxoak
 Mateo Moraza 19
 Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA
 Sagardotegia
 Arraga auzoa.
 Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK
 IGANDERA IREKITA.
 ASTEAN ZE HAR
 ENKARGUEN BIDEZ.
 ASTEBURUETAN:
 HAMAIKETAOKAK ETA MERIENDAK**

euskaldunon topalekua, gure artean berriz ere

Bi urte t'erdi itxita egon ostean, Bagare Euskal Tokiak bere ateak zabaldu ditu berriro ere. Taberna desagertzeko zorian egon zen, alabaina, jende askoren esfortzu eta laguntza desinteresatuari esker, Bagare-ren irekiera errealitate bilakatu da. Honela, abenduaren 11an bere inaugurazioari ekin zioten.



Inaugurazioaren une bat

baino gehiagok eta hainbat enpresa eta elkarte eronkari erantzun zioten eta "jende askoren esfortzuari esker, taberna hemen dago berriro ere", dio Argotek. "Guztiei eskerrak ematen dizkiegu eta dirua bueltatzeko konpromisoa ere hartu dugu". Taberna itxita egon bitartean, Bagare

elkartaren lana "moteldu" egin da, baina ez da bertan behera geratu. Denbora tarte horretan helburu nagusia taberna aurrera ateratzea izaki, "ez diogu behin ere ekintzak antolatzeari utzi eta ekitaldi kultural anitz gauzatu dira, Gaztetxean edo beste tabernatan, adibidez".

Etorkizunari begira

Jadanik euren helburua eskuratu dute eta hemendik aurrera gogo handiz ekin egingo diote geldirik utzi zuten lanari. Besteak beste, elkarte eztabaida prozesu batean sartzeko asmoa dute, Argoteren esanetan, "Bagare zertarako nahi dugun erabakitzeke". Horretarako, bazkideei inkesta bat bidali ondoren, gaur egun gure hiriko euskalgintzaren beharrak aztertuko dituzte, horren arabera jokatzeko asmoz. Memento honetan, euskalgintza "une interesgarrian" murgilduta dago Gasteizen, batez ere, Udalak plazaratu duen Euskara Plana dela eta; beraz, horren inguruan lan egitea funtsezkoa da. Horren haritik, Bagare-k zeregin honetan "trakzio-lana" egin beharko duela azpimarratu du elkarte ordezkariek. Bestalde, bazkide kanpaina berria martxan jartzea ere da euren xedea.

Argi dago, Bagare-k jasan duen arazoak, eta ondorioz, jendeak adierazi elkartasunak, aurrera egiteko indarrak eman dizkiola elkarteari eta horixe da, hain zuzen, eskertu nahi duena, hots, "jende askok eta hainbat elkarte guregan jarritako konfiantza, batez ere, AEK-k, Euskaraz Bizi eta Euskal Herrian Euskaraz elkarteek, Hala Bedi-k eta bazkide guztiek emandakoa, beste hainbaten laguntzari inolako meritua kendu gabe, jakina; GEUren kasuan esaterako, ahal izan duen neurrian lagundu digu eta beti egon da prest eskatu diegun guztirako". Azken finean, hauen guztien laguntza izan da Bagare tabernaren berragerpena posible egin dutenak.

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fourrier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

Dalvez maketazioa
argitalaritza
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa: 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net diseinua

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



Ruth Larrretxi

23 urteko gasteiztarra dugu Ruth. Aurten Kazetaritzako ikasketak amaituko ditu eta bien bitartean, noizean behin administrari lanak egiten ditu Osakidetzan. Musika maitalea da. Txalaparta jotzea gustuko du eta batzuetan bere taldearekin kontzertuak eman ohi ditu. Gainera, perkusioa jotzen ikasten ari da. Etorkizunari begira, bere ametsetako bat “liburu bat idaztea” dela dio gazteak.



saioa fdz. de arangiz
argazkia: edorta sanz

• **Duzun biziorik handiena?**
Bainu beroak hartzea.

• **Eta bertutea?**
Pazientzia.

• **Zer eskatzen diozu bizitzari?**
Osasuna izatea, batez ere, mentala.

• **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**
Komunikabideek zabaltzen duten desinformazioa.

• **GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai?**
Bai, harpideduna naiz eta uste dut etxean ale guztiak ditudala.

• **Egunkari bat?**
Batez ere Gara, baina bestelakoak ere irakurtzen ditut.

• **Telebista saio bat?**
ETB-ko Mundo.Hoy.

• **Filmik gustukoena?**
“El ladrón de bicicletas”, Vitorio De Sicca-rena.

• **Jaki gozoren bat?**
Denetarik gustatzen zait, bereziki, barazkiak.

• **Fobiarik, beldurrik?**
Gauean etxera bakarrik joateak beldurtzen nau.

• **Oporrak non eta zertarako?**
Brasilen. Gauza berriak ikusteko eta ikasteko.

• **Eta nora ez zinateke joango?**
Benidorm-era, adibidez.

• **Liburu bat?**
Irakurri dudana azkena, Michael Moore-n “Estupidos hombres blancos”.

• **Kolore bat?**
Egoeraren arabera, baina beltza gustukoa dut.

• **Musika gustukoena?**
Azken boladan asko entzuten dut Brasilgo musika.

• **Gorputzeko atalik politena?**
Oinak.

• **Zer da Gasteizek duen onena?**
Birziklapenaren arloan lan handia egin du hiriak.

• **Eta txarrena?**
Ireki berri duten Boulevard-a.

• **Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?**
Nahi izanez gero, bai.

• **Amets bat?**
...Geu Gasteiz aldizkarian agertzea...ja, ja, ja...

• **Amesgaizto bat?**
Ametsik ez egitea.

• **Zer eskatzen du herriak?**
Askatasunez aukeratzeko aukera.

URTARRILA

urte berri on

ULTURAI SIALDIARI SO

23

8-15-22-29

MINTZALAGUNA

GEU ELKARTEAREN eskutik Ostegunero, Falerina kafetegian (Montehermoso) 19.00etatik aurrera: asmorik baduzu bertan parte hartzeko elkartean izena eman ezazu (945222153, arratsaldez. Josune).

9

TXAN MAGOA. MAGIA IKUSKIZUNA

Tokia: Vital Kutxa Fundazioaren aretoa
-Bake kalea, 5 (Dendaraba), Gasteiz-
Eguna: urtarrilaren 9a (ostirala) - 20:00etan
Antolatzailea: Vital Kutxako Euskara Zerbitzua
Txan magoarekin magia ikusteaz gain barre algarak egiteko aukera izango dugu; oraingoan joko berriak ekarriko dizkigu eta beti bezala ez dugu jakingo noiz den ilusioa eta noiz errealitatea.

Oharra:

Guk antolatzen ditugun ekitaldi guztiak euskaraz izaten dira eta dohainik

GAUEKOAK

Urtarrilak 9, ostirala
Gazteentzako Ipuin eta Kontakizun Laburren X. Lehiaketaren Sari Banaketa.
22.30 h. Aldabe G.E.

13-20-27

PARRAL TABERNA URTARRILEKO EGITARAUA

Asteartero, 20.30etan

13. antzerkia
20. kontzertua:
Gasteizko talde flamenkoa
27. Kultur Errota
(Geu elkartearen eskutik):
Zehazteke

24

EUSKHARAN

Bidaiak euskaraz.
Mintza praktika
Euskal Herriko herri euskaldunetara irteerak hileroko azken larunbatean (5. Urratsa beharrezkoa da gutxienez).

ELANTXOBE

(Autobusa: 15 euro. Janaria eraman)

Urtarrilak 24

- Irteera: goizeko 9.00etan, Las Nieves-eko elizatik
- Itzulera: 21.00etan

Informazio gehiago: Euskharan kultur elkarte, 945288275 - Aranbizkarran, Benito Pz. Galdos plazan - Amaia zentroa (harrera orduak: astelehenetik ostegunera, 20.00etatik 21.30etara).

23

GEU ELKARTEA & GAUEKOAK

URTARRILAK 23, ostirala, 22.30etan:
ASIER SERRANO kontzertuan.
"Gerrari bai" disko berriaren aurkezpena.
Sarrera: 2 euro (30 urtetatik aurrerakoak: 4 euro).
ALDABE GIZARTE ETXEAN

0.00etan BERTSO-TRAMA. Arabako Bertsozale Elkarte-k antolatuta.

18

GEUREKIN MENDIRA

URTARRILAREN 18an
FLOR, UMIÓN (1434 m.)
Arduraduna: KIKE (945140158)
IRTEERA: LOVAINA PLAZAN,
goizeko 9.00ETAN

27

KULTUR ERROTA & GEU

Biraka dabilen harria, sorkuntzan ari den herria
URTARRILAK 27
Zehazteke
Parral-en, 20.30etan

geugaste@grn.es • geuelkartea@grn.es

II. atalaren laburpena (abenduko alea): DEPENDE II. Jon Arretxe

Sasimusikarien arteko eztabaidak hor dirau: funtsezkotasuna, dependetasuna..., txirriak erre eta erre. Halako batean Josu agertzen da berriro ere tabernako atetik oihuka, eskopeta bat eskuan duela. Tabernaria badaezpada makurtu egiten da barraren atzealdean. Lagun guztiak kikildurik, Josuk, berak idatzi kanta irakurtzeari ekiten dio... eskopeta eskuan duela. Barre kate batek eten egiten du irakurketa. Orduan Josu tiroka hasten da: banan-banan garbitzen ditu guztiak. Ondoren, bere txakur Lagunekin beste taberna batera abiatzen da; tabernaria eta indiar hazpegiko bezero bat baino ez daude bertan. Laranja mirinda eskatzen du, metraje laburreko film ospetsuari jarraituz, tramankulua txamarra barruan ezkutaturik daramala. "Entzun nahi duzue nire azken kantarako asmatu dudana letra?", galdetzen die.

estixu breñas glz. de zarate



TXABI ARNAL

DEPENDE (III. atala)

- Ez, ez dut entzun nahi -zorrotz erantzun zuen tabernariak. Eta zerbait edan nahi izanez gero berehala eskatu beharko didazu, ixteko ordua da eta etxera joan nahi dut lehenbailehen. Mirindez, pelikula zaharrez eta zure abestiez gau osoa hitz egiten emanda, eztarria Saharako hondarra baino lehorragoa izan behar duzula nik uste.

losu mututu zen. Nahiz eta bere begiradak hiltzaile batena zirudien, tabernariak normaltasun osoz hartzen zuen. Ez al zekien barra atzeko gizon koitadu hark errukirik gabeko munstro baten aurrean zegoela? Ez. Eta zergatik jakin behar ote zuen? Zergatik susmatu behar zuen aurrean zeukan bezero gazte horrek garbitu berriak zituela lagunak? Bai, txamarra azpitik ezkupeta baten gatilua

laztanten ari zen, eta tabernariaren burmuina taberna osotik barreatuta bukatzeko arriskuan zegoen, baina nola jakin hori guztia? Ezin barrundatu ere! Bera tabernari bat baino ez zen, eta barra atzekoek, askotan psikologo bikainak badira ere, nahikoa lana izaten dute edariak ateratzen eta bezeroen adar jotzeak pairatzen eta jarraitzen. Ez, azken finean gure tabernaria ez zen futurologoa, eta, askoz gutxiago ere begietan X izpiak dituen superheroi horietako bat.

- Barkatu? -losuk, bere pentsamenduetatik ateratzen.
 - Zerbait edan behar duzu? Bai ala ez? -keinu soil batez lan handia zeukala eta ez zuela denbora alferrik galdu behar jakinarazi zion tabernariak.
 - Bai. Gustura edango nuke garagardo handi eta hotz bat,

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

GORA EUSKADI

ASKATUTA!

baina sosik ez daukat. Badakizu, hasten ari garen musikariok ez gara batere kaudimendunak. Operación Triunfokoak izan ezik, jakina!

Betondoa zimurtuz tabernariak so egin zion losuri.

- Eta eskobatzen, ba al dakizu eskobatzen? Hemen ez dugu ezer musu-truk ematen. Garagardo handi eta hotz batek eztarria freska diezazun nahi izanez gero, taberna erratzaz garbitu beharko didazu. Ados zaude?

- Konforme! Non daukazu erratza?

- Har ezazu!

- Aizu! -hizketan jarraitu zuen losuk erratza pasatzen zuen bitartean-, zergatik ez duzu nire azkeneko kantarako hitza entzun nahi izan?.

- Ederki ezagutzen dituelako trikimailu zahar horiek, eta baita trikimailuak erabiltzen dituztenak ere -esnatu zen izkinako indiarra. Aurpegi handi asko agertzen da hemendik bere artea mozkor baten truke aldatu nahian. Artista kopetadun asko dago munduan, bai jauna, gehiegi!

- Bai, halaxe da, laguna, eta niri dagokidanez, nahiago dut erratzaren artea gitarra eta ahotsarena baino. Gitarra on bat entzun nahi dudanean Richards edo Jimmyri eskatzen diet laguntza. Eta beti betetzen dituzte nire aginduak, beti, inolako kosturik gabe, kobratu barik -tabernariaren aurpegian irribarre handi bat agertu zen. Bai horixe! Richard eta Jimmy nire tabernan, "jam" ezinezko batean murgildurik, Muddyren abesti zahar bat inprobisatuz, niretzat bakarrik jotzen, debalde, lagun handiak garelako.


losuk ez zien inolako jaramonik egin tabernariak emandako azken azalpenei. Eta hauxe oraindik ere bere ametsetan sartuta zegoela, indiarrarengantz itzuli zuen burua, errukirik gabeko hiltzailearen aurpegia jarriz. Ondoren, beroki azpiko eskopetaren gatilua laztanduz, galdetu zion:

- Eta zuri, nork eman dizu baimena elkarrizketa honetan parte hartzeko?

- Auzoko polizia da -aurreratu zen tabernaria giroa lasaitu nahian. Eskualde honetako tabernak zaintzen ditu arloteok arazoak sor ez ditzazuen.

- Horrela da -esan zuen aurpegi serioz indiarrak. Jon, kobradazu hau. Goiko Tabernara igo nahi dut gaurko erronda amaitu baino lehen.

- 'Goiko Tabernara?', losu dardarka hasi zen. 'Gorpuak ikusiko ditu!', arteगतu zen. Lagunduko zaitut -esan zuen azkenik.



Indiarrak ez zion erantzun. Abiatu aurretik losuk garagardoa hustu, erratza barraren kontra jarri zuen, eta korrika atera zen kalera poliziaren urratsen atzetik.

Goiko tabernara iritsi zirenean poliziak ez zuen denborarik izan ahotsaz adierazteko bere begiek ikusi zuten ikuskizun ikaragarri hura. Eskopetaren kanoi bikoitza indiarraren giltzurrunen kontra ipinita, losuk gatiluari eragin zion.

Bere azkenengo biktimak oraindik ere bizirik zirauela, losuk hiltzak pilatzeri ekin zion. Zerbait pentsatu beharrean zegoen, eta azkar gainera. Bere hatz-aztarnak edonon zeuden, poliziak ez zuen inolako arazorik izango sarraski horren erruduna aurkitzeko. Bat-batean norbaitek jo zuen atean. Hamazortzi urte inguruko neska bat zen, eskuan gitarra bat zeramana:

- losu, zabaldu atea mesedez! Badakit barruan zaudela. Lagun batek lagunduta ikusi zaitut sartzen. losu, mesedez, ireki. Asmatu berria daukat doinu bat eta pentsatu dut agian zuk izan zenezakeela ongi datorkion hitzaren bat. losu, benetan, bonba bat izango da!

'Kaguensos! Bonba? Nire esku artean lehertzeaz dudana! Eta nork esan ote dio Edurneri hemen elkartu behar ginela taldekideok? Eta txakurra? Non dago txakurra? Kakazaharra! Lehengo tabernan ahantzi dut'.

© txabi arnal & geu aldizkaria

sartu
Zure arropa eta ainetakoak
www.sarludenda.com
Kutxilleria, 27 • Gastelz • 945 260 710

BARRA TABERNA
Erverditan, zestel eta etik ostiralek
JANTOKI BEGETARIANOA
SAN FRANCISCO XABERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaituz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ORREAGAKO GATAZKA

Erlantz Urtasun (Historialaria)

778. urteko abuztuaren 15ean gudu batek Nafarroako Pirinioak astindu zituen. Milaka pertsonak egin zuten borroka garai horretako gatazkarik larrienean. Nork hartu zuen parte?

Eta garrantzitsuena: zergatik?

Guduaren arrazoi historikoak

Erromatar Inperioak herri multzo ahitu bat zuen menpean eta altxamendu ugari gertatzen ziren; horregatik, bosgarren mendea aurrera zihoala, hainbat lurralde aske gelditu ziren, bai arraza ugari errepublika komunitarioen bidez bai erromatar kristauen inperialismo esklabistak ezarritako formatik urrun zeuden ezarpen nazionalen bidez. Hala gertatu zen Baskonian, Nafarroako hizkuntzaren lurraldean, mendebaldeko eta hegoaldeko mugak ezezagunak izanik, Pirinioak hartzen zituen eta Bordeleraino iristen zen lurraldean. Bosgarren mendean erromatarrek zuten pisua, gizarteko altxamenduek zutena eta borroka nazionalarena zehaztea zaila da. Egitura inperialak ahultzen ari ziren Baskoniako indarren aurrean, gatazka esparru guztietara hedatu baitzen. Baina Erromatar Inperioa, iritzi orokorraren kontra, ez zen erori. Aldatu egin zen eta itxura erromatarra, jantzi kristauak eta hatzapar gemaniarrak zituen izaki bat sortu zen; baina legionarioei aurre egiten bostehun urte baino gehiago igaro zituzten nazioak ez zeuden munduaren banaketa berri horretara gonbidatuta.

Hurrengo mendeetan Baskoniak aurre egin zion asimilazioari eta bere nortasun-zeinuei eutsi zien, esparru guztietan zentralizazio inperiala gertatu zenean: esparru juridikoan -foruak Pirinioetako zuzenbidearen aztarna dira-, sozialean -taldearen eta emakumearen funtzioak-, erlijiosoan -paganismoaren eta arbasoen animismoaren aldeko apustua-, ekonomikoan -botere-zentroen aurrean-

edo hizkuntzari zegokionean -Nafarroako hizkuntza nazionalak indarra hartu zuen kanpotik ezarritakoaren aurrean-. Laburtuz, subiranotasun politikoa Baskoniaren zati handi batean eta estatu nazional baten eraikuntza; baina gerra galdu ondoren horri buruz erreferentzia eta intuizio gutxi batzuk baino ez dira iritsi, eredu estatal hura azkenean garaile gertatu zenaren eta oraindik indarrean dagoenaren desberdina baitzen.

Bosgarren mendetik zortzigarrenera, aldiz, Europako mendebaldeko sistema berria ez zen gai izan baskoiek eskatzen zuten askatasuna menperatzeko; nazio horrek Aita Santuarengandik, nobleengandik eta errege germaniarrengandik urrun zegoen mundu bat sortu zuen. Bisigodoek eta frankoek ezin zuten ezer egin -baskoien tropak bi aldiz sartu ziren Zaragozan-, eta musulmanek aurrera egiten zuten heinean Mediterraneoaren hegoaldean eta ekialdean gero eta baliabide gutxiago zituzten. Hainbat arrazoik, horien artean Europako erdialdean gertatutako hazkunde demografikoak eta sistemak gai hori baztertzeko zuen borondateak, Nafarroako proiektu alternatibo nazionalaren porrota ekarri zuten. Horren adierazle argia izan zen Karlomagoren, baskoien genozidaren, koroazioa.

Jazotakoak

Zortzigarren mendean Iberiar Penintsula islamizatu egin zen eta bisigodoen erresuma suntsitu zuten. 711. urtean bisigodoek eraso egin ziguten, baina hegoaldera joan behar izan zuten eta han porrot egin zuten. Zazpi urte geroago Iruñeak gobernu

musulmana zuen eta, beraz, Pirinioetako iparraldean zeuden baskoien tropen esku zegoen gure nazioak, Auñamendira begiratu beharrean, Mekara edo Erromara begiratzea saihestea. 721. urtean Eudon printze akitaniarrak, subirano baskoia, Okzitaniako Tolosatik hurbil Al-Samh ibn Malik-en musulmanen kontra garaipena lortu zuen. Mendebaldean islamak izandako lehenengo porrota izan zen, hau da, baskoien armadak musulmanek aurrera egitea saihestu zuen. Baina Europako botereak, Aita Santuak eta frankoek beren interesen kontra zihoan gure herria babestu behar al zuten horregatik? Ez. 731. urtetik Carlos Martel buruzagi frankoak gerra irekia deklaratu zigun, musulmanak iristen ari ziren bitartean. Bi frontetan eta aberria txikituta, musulmanen armadak Eudonen armada garaitu zuen. Carlos Martelek, musulmantzat gudu gogorra izan zela ikusita, eraso egin zituen eta Poitiersen garaipena lortu zuen. 732. urtea salbazio-urtea da frantziarrentzat, Frantzia "izu afrikarretik salbatu" zen urtea baita, eta Carlos Martel heroi nazionala da. Horrela idazten da historia.

Hamar urte geroago gure arbasoak Hunaldoren gidaritzapean borrokatu ziren, baina menperatzaileek gotorlekuak altxatu zituzten, bretoiekin -zelta paganoak eta zuzenak- bat egitea saihesteko, Erromatar Inperioaren gainbeheran parte hartu baitzuten eta beren independentzia defendatzen baitzuten. Errolanek Britainia konkistatzeko asmoa zuen, baina baskoiek Orreagan hil zuten. Frankoek baskoia Loira ibaitik Garonara bultzatu zituzten eta Pirinioetan ere babesik ez bilatzeko presionatu zuten.

Gaiak



Errolan, Karlomagnoaren konfiantzazko gizona

Hirurogeiko hamarkadan errege asturiarrek mendebaldetik eraso zuten eta musulmanek Araba inbaditu zuten (767); han botere-gune feudal kristauei aurre egin behar izan zieten, hurrengo mendeetan Erdi Aroko noblezia nafarra izango zena ezartzen ari baitziren, eta zergarik izango ez zuten autogobernua defendatzen zutenei, maiuei, ere aurre egin behar izan zieten. Garai berean Pipino errege frankoak urteko kanpainak egin zituen, 769. urtean Karlomagno, aurrekoaren ondorengoak, Bordele ondoan Franciacum gotorlekua eraiki zuen arte, handik Baskonia konkistatzeko. Lupus dux Wasconum izeneko buru militar frantziar batek egin zion aurre; izen horren ondorengo da Otsa ezizen eta abizen nafarra.

Karlomagno, 778. urteko espedizioarekin, baskoien kontrako eraso frankoiei amaiera eman nahi izan zien, baina abuztuaren 15ean Orreaga inguruan garaitua izan zen eta Mendebaldeko Inperioarekin gelditu zen. Nafarrei dagokienez, guduan hildako asko izan arren, 800. urteko Gabonetan Karlomagno enperadore koroatu zutenean, Araban,

Iruñean eta Pirinioetako iparraldean gogor jarraitzen zuten, ez baitzuten onartzen kanpotik ezarri nahi zieten sistema.

Zortzigarren mendean, gaur egungo Frantziar baskoiak garaitu ondoren –baskoien tropek Paris inguruan ere borroka egin zuten eta gaurko Frantziako erdialdean gotorlekuak eta homitzeko guneak zituzten–, Karlomagno bere zeregina amaitzea erabaki zuen eta Ebroko harana menperatu nahi izan zuen, orduan musulmanen esku zegoena. Plan taktiko bat prestatu zuen, Zaragoza. Helburu estrategikoa, Baskonia kontrolatzea. Munduko mila txokotatik iritsitako mertzenarioz osatutako armada izugarriarekin, agintari inperialak bi taldetan banatuta sartu ziren Kataluniatik eta Baskoniatik. Baina Zaragozako erasoak porrot egin zuen eta saxoniarrek, gaur egungo Alemanian frankoen menpe bizi zirenek, egindako altxamendu nazionalen ondorioz, Karlomagno itzultzeko agindua eman zuen.

Handik itzuli zirenean, Iruñea suntsitu zuten. Baina Baskoniak gaur egun ezagutzen ez dugun antolamendu berezia zuen. Nafarroak portuak, hiriak, industriak eta

punta-puntako teknologia militarra zituen eta, urte askotan egin behar izandako defentsa-lanak nahikoak izan ez ziren arren, Pirinioetan ondo hornitutako armada nazionala bildu ahal izan zuen; armadako buruek eguna eta tokia aukeratu zituzten armada inperialaren kontrako eraso gogorra egiteko. Baskoniak sistemaren kontra lortutako garaipen ezagunena da. Atzerriko milaka mertzenario gelditu ziren gudu-eremuan eta mitologiak gogoratu ditu gero; Karlomagnoen sikario handiena ere bertan hil zen, Errolan, gobernuaren ordezkaria Breizh-en (Breitania). Inperioko Estatu Nagusiak guztia eman zuen. Baina Karlomagno, enperadore izango zena, salbatu egin zen.

Ondorioa

Hiru urte geroago, Cordoba eta Karlomagno Baskonian nagusitu ziren. Kroniken arabera, Pirinioetan zeuden hainbat talde armada indartsuagoei aurre egiten saiatu ziren hurrengo urteetan. Batzuek munduko antolamendu berriari men egin zioten, beste batzuk hil arte borrokatu ziren. Amore ematea erabaki zuten leinu militarrek Nafarroako Erdi Aroko nobleziaren oinarriak ezarri zituzten. Baina Orreagako porrotaren ondoren, sistemak gerraren bidez garaitu beharrean progresiboki menperatzea erabaki zuen eta, Baskoniak –Iruñea inguruko Nafarroa–independentzia-maila txikia izan zuen Erdi Aroan.

Testuinguru horretan sortu zen Iruñeko Erresuma Nafarroan; bertakoen kaiola bihurtu zen poliki-poliki eta botereak bertako biztanleak beregana zitzakeen bertatik, boterearen ikuspegitik zibilizatu gabeko indigenak baino ez baitziren. Hala ere, erresumak arrakasta izan zuen, bertako biztanleek aukera gutxi baitzituzten feudalismoaren garaipenaren aurrean. Baina erresumari esker, gainbeheran zeuden arren, beren bizimodu sozio-ekonomikoak, politikoak, juridikoak eta kulturalak (etnolinguistikoak) gaur egun arte irautea lortu zuten, inguruko erresumetan gertatutako hondamenen aurrean.

itzulpenera: aztiri

© Erlantz Urtasun & geu aldizkaria

UNAI ELORRIAGA:

“EUSKAL LITERATURAN NEKEZ EGON GINTEZKE HOBETO”



Katedralak aurten bigarrenez Gasteizen antolatu idazle ezagunen arteko jardunaldietara gonbidatua izan zen pasa den hilean Unai Elorriaga, 2001eko Narratiba Sari espainolaren irabazlea. Getxotarrak eraikina bisitatu eta Europa Jauregian “Kanpaiak literaturan” izeneko hitzaldia eskaini zuen. “Katedralak dituen objektu eta literaturan dauden ezaugarrien arteko parekotasunak bilatu ditut”, aipatu zuen *SPrako Tranbia* eleberriaren autoreak.



Unai Elorriagaren eskuak, buztinean, Buztintza zeramika-tailerraren ekimenez (Erdi Aroko gunea)

Euskal literaturaz mintzatzeko tartea ere egin zuen Elorriagak. “Nekez egon gintezke hobeto -azpimarratu zuen gazteak. Euskal literaturan egun 10 bat autore daude zeinak mundu osoan ezagutuz gero, munduko 100 literato onenen artean egongo lirakekeen, Saizarbitoria, Sarrionaindia edo Atxaga, besteak beste. Egundak, euskal literaturan idazle gazteak nahiz helduak oso onak dira. Gauza benetan onak egiten ari dira nire aburuz eta kontuan hartu behar da ni nahiko kritikoa naizela”.

Ken Follet idazleak katedrala bisitatu eta berarengan utzitako lilura dela eta, esan zuen akaso bere hurrengo lanean Gasteizko tenplu gotikoari buruzko pasarteren bat izango zuela aipagai. Hainbestean iradoki al dizu zuri bisitak?

Katedrala bera ez nuke aipatuko baina bai, ordea, eraikinaren inguruko xehetasunak, bisita egiten ari nintzela ikusi ditudanak. Arreta deitu didaten xehetasun bereziak ikusi ditut. Sekulan ez dut ikusi hemen dagoen bezalako biziberritze lana, harrigarria da. Gauza kurioso asko dago eta akaso gauzaren bat edo beste joango da.

Katedralak gonbidatu idazle ezagunen artean izan zara. Zer gehitu diezu zuk hitzaldi hauetarako?

Idazle guztiak daukate euren ekarpen propioa. Nahiz eta munduko idazle handiena izan eta bestea txikiena aldiz, uste

dit txiki horrek barruan daukana ez daukala handiak eta alderantziz. Nik esate baterako, eta adibide bat aipatzeagatik, hurbilgoko Euskal Herriari buruzko irudia daukat Ken Folletek ez daukana.

Zure hirugarren liburua dena prestatzen diharduzu. Aurreraterik bai?

Bai. Abenduan jaunkoia lagun ibili nintzen “Van’t Hoffen ilea” gaztelaniara itzultzeko eta behin lana amaitu dudala, urtarrila-otsaila bitartean nire hirugarren eleberriari ekingo diot. Ume bat izango da protagonista eta oraingoan kontatuko dudana istorioa bitxia izango da. Elementu kurioso batzuk izango dira bertan. Horien artean rugbya agertuko da, orain arte literaturan sekulan agertu ez dena eta nik eraman nahi nuke. Hortik aurrera, eten-puntuak...

RUPER ORDORIKA

“Inork ez zidan esan, euskaldun izatea zein nekeza den...”

“KANTUOK JARTZEN DITUT” du izenburu Ruper Ordorikaren azkeneko lanak. Disko berri honek 12 kantu biltzen ditu eta Ruperren esanetan, “Disko zabala da eta neure zenbait joera ekartzen ditu batera. Esango nuke grabazioa egokia dela ere, oso ondo erakusten baitu egindako saioen bizitasuna eta hurbiltasuna”.

Kantuatariko bat Joseba Sarrionandiaren poema bat erabiliz osatu du abeslariak: “Kantuaren gauza galdua”. Bakarkako lana behin eta berriro landu eta gero, Azkarateko Katarain estudioan elkartu nintzen Ben Monder, Kenny Wollesen eta Jon Maronekin. Jonan Ordorikak, neure anaiak, egin zituen teknikari lanak eta Gasteizko neure betiko musikari lagunak ere eduki ditut alboan: Alberto, Nando eta Virginia de la Casa. Dena etxean!”. Ruper Ordorikaren 13. lana den hau **Gasteizen, Principal antzokian, aurkeztuko da martxoaren 18an.**

Zer-nolako balorazioa egiten duzu zure orain arteko ibilbideaz? Nola uste duzu lortu duzula hainbeste urteren buruan musika munduko tontorrean mantentzea?

Ez naiz batere taktikoa nire eginkizunaz. Ahal bezala ibili naiz kantuan eta diskoak ez dira horren ondorio zuzena baino. Niretzat musikarena ikasbidea da, osagarria, eta kantuak bizimodua pitintxo bat gozatzeko era bat, zeozer gehituago ezagutzeko modua.

“Musikan egiak ere badaudela” nonbait esan duzu. Garaia al da musikaren bitartez egiak argitzeko?

Badakizu, ex cathedra hitz egiten espezialista bilakatu naiz egunotan eta kontuan izanik kazetari batzuk ere nire moduan ibiltzen direla, ba balduta nago. Benetan ez dakit egiaren kontu hori inoiz esan ote dudan. Galdera erantzuteko baietz esango dizut, seguruen egia beharrezkoa dela edozein sormen lanen



baitan. Ez da komeni ahaztea simulakroa ere oso lagungarri izan daitekeela.

Musikak duen hizkuntza poetikoa ere baliagarri izan zaizu Euskal Herriaz mintzo izateko. Zer kontatzen duzu zure kantetan?

Nik uste dut Euskal Herriaz bainoago Euskal Herritik aritu naizela disko honetan.

Berbeta, hitza, hizkuntza bera dago kantuaren oinarrian eta urte beltza pasatu du euskaldun jendeak. Oso modu negatiboan seinalatuak sentitzen gara etenbarik. Horren aurrean gogoia eduki dut zeozer egiteko: neure apurra. Dena den, ez naiz horrelako gaietara lerratu erabat. Aurreko diskoetan bezala honetan ere gaiak ugari dira.

“Inork ez zidan esan, euskaldun izatea zein nekeza den...” Hitz horiekin egungo egoerari begiratu egiten diozu. Egiari bidea eman nahi dion hizkuntza poetikoaren baliabide bat al da hau?

“Zaindu maite duzun hori” kantutik ateratako esaera bat da hori. Kantu horrek oihartzun handia jaso du. Asmoa nuen kantu leun bat egiteko, errepikak dioen bezala, ez nuen asmo handirik, baina batzuetan jendeak osatzen ditu kantuak, entzuleek borobiltzen dituzte.

ULTERRA 2010

IBAN ZALDUAK LIBURU BERRIA
IDATZI DU:

“ILE LUZEEN KONDAIRA”

Iban Zaldua donostiarra izan arren, badira urte batzuk gasteiztar sentitzen dugun idazlea dela. Literaturan modalitate ezberdinak jorratu ditu egun Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle den honek, ipuinak (“Ipuin euskaldunak”, “Gezurrak, gezurrak, gezurrak”, “Traizioak”) edota saiakera (“Obabatiko tranbia”), besteak beste. Oraingo honetan, eta gazte eta haur literaturan aurretik aritu bada ere (“Kea ur gainean”), Pamiela argitaletxearen gazte eta haur literatura sail berria inauguratu du, “Ile luzeen kondaira” idatziriko bere azken lanarekin.



Oraingo honetan gazte literaturan kokaturiko liburua idatzi duzu. Alderik ba al dago helduentzako edo gazteentzako literatura artean?

Printzipioz, uste dut ez litzatekeela desberdintasun handirik egon behar (haurrentzako literaturan bai, ordea): uste dut gazte bati errespetua zor zaiola, irakurle bezala, heldu bati bezainbestekoa. Izan ere, *Ile luzeen kondaira*-ren lehen bertsioa (zirriborroa, nahi izanez gero) helduentzako ipuin bat izan zen: lagun batek animatu ninduen gazteentzat moldatzera, eta erronka interesgarria iruditu zitzaidan. Desberdintasunak, alde horretatik, txikiak direla uste dut: esaterako, azkeneko bertsioan Sansonen historia biblikoa azaltzen dut, laburki, eta halakorik ez nuen egiten helduentzako “bertsioan”, irakurle adintsuago bat erreferentzia horren jabe dela uste nuen heinean. Baina ñabardura horiek alde batera utzita, funtsean berdintsu idatzi beharko litzatekeela pentsatzen dut.

Izan ere, gazteek gaur egun literatura baino telebista, bideo-jokoak, zinema, etab. nahiago izan ohi dituzte. Kasu horietan, zer behar du literaturak erakargarri suerta dadin?

Literaturak literatura izan behar du, ez besterik: absurdua da beste medio horiekin konpetitu nahi izatea. Literaturak eskaini beharko lukeena da, hain zuzen ere, *soilik* literaturaren bitartez konta, adieraz daitekeena. Roberto Bolañok esaten



Asisko Urmeneta da liburuaren irudigilea


zuen bezala, mesfidantzaz hartu beharko genituzke filma edo telesail aise bihur daitezkeen edo bihurtzen diren literatur produktuak. Dena dela, erraza da horrela hitz egitea, eta zailagoa esandakoa betetzea: gai labainkorra da, eta ez dakit muga non dagoen.

***Ile luzeen kondaira* zure azken lanean fantasia heroikoaren generoa jorratzen duzu. Zuk fantasia eta zientzia fikzioa gustuko dituzun generoak dira, zeintzuk aukera ematen dizkizute hauek idazteko orduan?**

Nik uste dut gaur eguneko egoerei buruz idazteko aukerak zabaltzen dituen genero bat dela zientzia fikzioarena; Ricardo Pigliak esan zuen bezala, “Txantxetan esan ohi dut istorio guztiak etorkizunean kokatzen direla, baina etorkizunean *nahita* kokatzen diren istorioak, normalean, orainari buruz argiago hitz egiteko egiten dute hori”. Fantasia heroikoari buruz, ordea, ez nago horren ziur: normalean iraganeko mundu mitiko batez hitz egiten digute, zeinetan ongiaren eta gaizkiaren arteko marra oso gardena baita, etab. Oro har, azpigenero hori ideologikoki nahikoa kontserbatzailea dela esango nuke, *Erastunen Jauna*-ren epigono eta “frankizia” gehienek frogatzen duten bezala (baita Tolkienen obra bera ere, zentzu batean; baina beste balore batzuk ditu, dena dela). Alde horretatik, eta azpigenero horretatik abiatuz (eta “abiatuz” hori azpimarratu nahiko nuke), zerbait ezberdina egiten saiatu naiz *Ile luzeen kondaira*-rekin. Lortu ote dudan ez dakidan arren...

ASIER SERRANO & "GERRARI BAI"

"Diskoak ez dauka zerikusirik biolentziarekin, horren kontrakoa naiz eta"



Oihuka

Asier Serranoren izenak gogor jo du azken hilabeteotan, disko berria aurkeztu berri baitu, "Gerrari Bai" izenekoa. Lorelei taldeko abeslaria izandakoa musika munduan hasi baino lehen literaturan ibili zen. "Duela hamabi bat urte musikari batzuekin batera hasi nintzen poesia errezitatzen, Mikel Markez eta Joxemari Karrererekin ere aritu nintzen *Igurtzi nazazu berriro laztana* ikuskizunean -azaltzen du gazteak. Ondoren, taldeentzako kantak egin nituen eta literaturatik natorren heinean, prozesu naturalari jarraituz, musikan bukatu nuen". Lorelei taldearekin bi disko atera eta taldea bertan behera geratu zelarik bere bakarkako lehen lana kaleratu zuen, "Ez esan inori" izenekoa. Oraingoan GEU ELKARTEAK eta Gauekoak-ek Asier Serranoren "Gerrari bai" disko berriaren kontzertua entzuteko aukera eskaintzen dizuete. **Urtarrilaren 23an, ostirala, 22.30etan Aldabe Gizarte etxeko Antzokian. Sarrera, 30 urte beherakoentzat, 2 eurokoa; gainontzekoentzat, 4 euro.**

Lorelei taldeak arrakasta handia izan zuen, harrera ona benetan. Bi disko kaleratu eta gero taldea bertan behera geratu zen. Zein izan zen arrazoia?

Egia da Lorelei-k gozotasun eta erakarpen hori bultzatu zituela. Produkzioa ez genuen egin publiko handi batera heltzeko asmoz, baina hala eta guztiz ere horrela izan zen. Horrek zentzu handi batean taldea desegitera bideratu zuen, izan ere, taldea modu batean bazen ere komertzial bilakatu zen. Ni ez nintzen gustura sentitzen 'masa' handiaren artean, ez 15 urteko nesken abeslaria izanik ere, alegia.

Hortaz, Lorelei utzi eta bakarka ibiltzeari ekin zenion. Lehenengo lana, "Ez esan inori", eta bigarrenaren izena arreta deitzen duen horietakoa, "Gerrari bai"...

Ikasketa prozesu batean sartu nintzen Lorelei utzi eta gero. Nire kanta propioak konposatu nahi nituen. Zeregin horretan gai nintzen jakiteko apustua izan zen hura. Nire buruaren hausnarketa egin behar nuen, krisi pertsonalean murgilduta nengoen eta

gauza intimoa egitea guztiz beharrezkoa nuen. Barruko kontuak askatzeko balio izan zidan eta indarberritua bueltatu nintzen. "Gerrari bai" diskoa oso lan aberasgarria izan da zentzu horretan. Disko soziala da eta ez dauka zerikusirik biolentziarekin, horren kontrakoa naiz eta. Norberak bere buruarekin duen gudaz ari naiz, autokritikari bai esaten diot bertako 11 abestietan, baita bukaerako poema errezitala den norberarekin gudari bai dioen manifestuan ere.

Estilo aldaketarik izan al da taldean egiten zenuen musika mota eta zure bakarkako lanaren artean?

Lorelei sekula erabat aparkatu ez dudan arren, nabaria da bakarka ari naizenetik, entzuleriari dagokionez, jende helduagoa dela. Azken finean, hau beste zirkuitu bat da eta. Nik, eta aurretik aipatu dudan bezala, musika eta hitzak behar nituen. Dena den, sopresatxoren bat emateko ere badugu oraindik Nortonek eta biok. Esan behar dut pribilegiatu sentitzen naizela nire bizibidean, izan ere, nahiz eta entzule gutxi izan fidelak dira erabat eta eurei zuzentzen diet nire lana.

MAROKO



Mendetan Marokok poetak, artistak, idazleak eta bidaiazale ugari erakarri ditu, exotismo bila doazenak batik bat. Bidaiazale askok Afrikarekin eta kultura islamdarrarekin duten lehen harremana Marokon dute. Marokora joatea esperientzia harrigarria izan daiteke, herrialde liluragarria eta nahasgarria delako, kontraste handikoa, paraje koloreanitzak dituelako, usain arraroekin eta errepikatu ezinezko sentsazioak bizitzeko aukera ematen dizulako. Bidaiia desberdin bat nahi duenak, barietate eta kolore askotarikoa, Marokora joan behar du.

NONDIK NORA: Gasteiz-Maroko.

HERRIAREN DATUAK: Biztanleak: 30,1 milioi marokoar. Eremua: 446.550 Km². Hiriburua: Rabat. Hiri nagusiak: Casablanca, Fez, Marrakex. Etniak: arabiarak (% 70) eta berberek (% 30). Erlijioak: musulmanak (% 98,7), kristauak (% 1,1), judutarrak (% 0,2). Muga arazoak: Marokok Mendebaldeko Sahara okupatuta du.

NOLA JOAN: Modu desberdinak daude. Zuzenena Marrakex edo Casablancara hegazkina hartzea da. Baina merkeena da trenez Algeciraseraino joatea, bertan ferrya hartzea Tangerrera iristeko.

ZENBAT DENBORA: 2 aste.

AURRETIK PRESTATU BEHARREKOA: Pasaportea eramatearekin nahikoa da.

MOTXILAN ZER ERAMAN: Ahalik eta gutxien eramatea gomendatzen da. Udan ezinbestekoa da kapela, eguzkitako betaurrekoak eta eguzki krema eramatea. Emakumeek, gona luzea motza baino hobeto. Oinetako erosoak.

TXANPONA: Dirham marokoarra.

HIZKUNTZAK: arabiera (ofiziala), tamazight (berbereen mintzairak) eta frantsesa.

HELBIDE-KONTAKTU INTERESGARRIAK:

1- LO EGITEKO:

Asilah: Patio de la luna hotela - Tlf: 039 416974 - Place Zellaka, 12.
Fez: Batha pentsioa. Tlf: 055 741150 - Sidi Lkhayat, 8 (Medinan bertan).
Marrakex: Central Palace hotela - Tlf: 044 440235 - Derb Sidi Bouloukat, 59.
hotelcentralpalace@hotmail.com

2- TXANGOAK EGITEKO:

Marrakexetik Saharako basamortura joateko txango ugari antolatzen dituzte (2-3 egunetakoak). Central Palace hotelean bertan prezio onean aurkituko dituzue. Bestela galdetu edozein hoteletan.

bidaiak



PLAN EREDU EGOKIA:

Gutxienez bi asteko bidaiak egitea gomendatzen dugu:

- Gasteizen tren hartu Madrilerara.
- Madrildik beste tren bat Algecirasera.
- Algecirasen ferrya hartu behar da Tangerrera (ordu eta erdi irauten du).
- Tangerretik lehenbailehen joatea gomendatzen da, ez ei delako oso hiri segurua eta atsegina (bakoitzak aukera dezala). Tangerretik Asilahra joango gara.
- Asilahn bi egun gutxienez pasako ditugu.
- Asilahtik autobusez Fezera joango gara. Bertan bi egun gutxienez emango ditugu.
- Fezetik autobusa hartuko dugu Marrakexera. Bidaiak luze samarra denez, bidean geldialditxo bat egin dezakegu herriren batean.
- Marrakexen bidaiak bukatu arteko egunetarako alojamendua bilatuko dugu. Bertan 2-3 egunetako txango bat kontratatuko dugu basamortura.
 - Marrakexetik Quarzazatera joango gara, Atlas guztia zeharkatuz.
 - Quarzazatik Saharako basamortura joango gara, bertako gida berbere batzuekin.
- Marrakexetik tren hartuko dugu (gauz hobeto) Tangerrera. Eta bertatik ferrya Espainiara (Algeciras). Espainiatik Euskal Herrirako itzulera trenez egingo dugu.

AHOLKUAK- JAKIN BEHARREKOAK:

- Emakume baldin bazara, arreta apur bat gehiago izatea gomendatzen da Marokoko hainbat tokitan. Izan ere, emakume atzerritarrek oso erakargarriak dira haientzat. Egoera deserosoak ekiditea norberaren abileziaren arabera da.
- Gomendagarria da emakumeek buruko zapiak eramatea, zenbait lekutan erosoago sentitzeko.
- Jarrera homosexualak debekatuta daude Marokon, beraz, kontuz.
- Tratuak egitea beharrezkoa da zerbait erosi nahi izanez gero.
- Jatetxeetan eskupekoa ematea ohitura da, gutxienez prezioaren % 10ekoa.

DERRIGORREZ EZAGUTU BEHARREKOA:

- Herri eta hiri guztietan **medina** edo antzinako gotorlekuak daude; merezi du bisitatzea, eta kale estu eta labirintu itxurakoetan galtzea (**Fez**koa bereziki harrigarria da).
- Medinetan **zokoak** daude, hots, denetariko erosketak egiteko denda txikiak.
- **Zurrategietan** larrua nola tratatzen duten ikus daiteke.
- **Basamortuan** gau bat pasatzea liluragarria izan daiteke.
- **Atlas garaian** bestelako kultura bat ezagutuko duzue, bertako jendea eta parajea arras desberdina baita, (bertan, **Dades-eko haitzarrea** eta **Ait Benhaddou** herri misterioak bisitatu).

BESTELAKOAK:

- **Janaria:** Kus-kus eta *Tajine* dira Marokoko ohiko janariak.
- **Edariak:** Alkohola edatea debekatuta dago. Tea da ohiko edaria.
- **Erosketak:** Alfonbrak, larrua, zilarra eta zeramika ona erosteko leku ezin hobea da Maroko.

Naturaren islak

Hontza handia (*Bubo bubo*)

Egun hauetan, araldian murgildurik, kabia prestatzen hasiko da emea. Txitoak martxorako jaioko dira.



Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EVSKAL LABELA LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

EA
eusko alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI
www.euskoalkartasuna.org

GA
gazte aberizaleak
www.gazteabertzaleak.com

MIKO
Izozkiak

KIDBI

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Bertakoari so!



ERLANTZ URTASUNen txokoa

Adi harpidedunak! Hona hemen aldizkariko txoko berri bat, denbora-pasak ordezkatuko dituen; Erlantz Urtasun historiagile entzutetsuaren zutabea izango da, non arabar efemerideak aurkeztuko dizkigun: data bat, gertakaera bat, biografiak, ... Zuek guztion gustukoa izatea espero dugu.

ANTSO VIa, JAKITUNA, ARABARRON ERREGEA

1128an jaio eta 1150ean erregè, nafarrak urte luzez batu zituen. Hau zen egoera: Gaztelak Errioxa, Bureba, arabar mendebalde eta Enkarterriak okupatzen zituen. Egungo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia gehiena nafar eskualde hutsak ziren. Ekialdea, Zuberoako mugatik Ebroraino kinka larrian zen, Aragoiko soldadua zelatan.

Hitz batez, euskaldunon egitura politikoa osatzen zuten nafar mugak kolokan ziren. 1162an, baina, nafar armadak Ebro zeharkatu eta Errioxa berreskuratzeari ekin zion. Laster Logroño nahiz Ebroko Miranda nafarrak ziren berriro. Urrats garrantzitsua babesteko 1163an Aragoiko erresumarekin akordioa erdietsi zuen.

1164an foruak eman zizkion Biasteriri, nafar errioxa bermatuz. 1172an bertze gune harresidun bat sorrarazi zuen, egun "San Vicente de la Sonsierra" deritzona. Handik zazpi urterat itun bat sinatu zuen gaztelarrekin, muga Ebroko alde hartan zehaztuz. Gaztelarrek Bilbo militarki konkistaturikoan Gasteiz berrantolatu zuen, 1181ean forua emanez. Urtebete beranduago Bernedo eta Antoñana ere harresitu zituen. Une horietan bertan Uda-Trebiñu eta Argantzun alderdian gauza bera gertatu zen.

1194an Antso VIa hil zen, erresuma semearen, Antso VIIa Azkarraren eskuetan geratuz. Lehoi zaharra desagerturik, 1199 eta 1200 artean gaztelarrek gerra egiteari ekin zioten berehala, Araba gehiena sarraskituz. Hau, baina, otsaileko gaia izanen dugu.

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

AGUAKATE ETA MENDREZKA HOSTOPILA



OSAGAIK

- Ahuakatak
- Hegaluze mendrezka oliba oliotan
- Etxean prestaturiko hegaluzea oliba oliotan
- Baba txiki freskoa
- Piper berdea
- Piper gorria
- Pepiniloa
- Ondo heldutako tomate bat
- Porrua
- Pedro Ximenez ardoa
- Oliba olio
- Jerez ozpina
- Gatza
- Txipiroien tinta
- Tipulina

Prestaketa

- Tomatea zuritu, ura eta haziak kendu eta txikitu ondoren, piper berde eta gorri, pepinilo, ozpin eta gatzarekin nahastuz olio-ozpin saltsa bat osatu.
- Baba txikia Pedro Ximenez ardotan egosi eta zuritu, eta ondoren olio-ozpinarekin nahastu. Binagreta hau komeni da lehor xamarra gelditzea.
- Ahuakatak zuritu eta xerra xehetan moztu, ondoren limoi zukuarekin igurtziz.
- Porrua garbitu ondoren, moztu xerra bat 15 x 4 cm-koa eta labe bizian sartu apur bat gorritu arte.
- Plateraren erdian ahuakat xerrak eta hegaluzearen xaflak bata bestearen gainean jarri, txandakatu, hostopila osatzen joan, bakoitzetik lau geruza jarri arte eta hostopilaren barrualdea hutsik lagaz.
- Erdiko hutsunea, binagretaz bete.
- Azken geruzan, mendrezka xafla fina jarri kanporaka begira hostoak izango balira bezala.
- Margotu txipiroi tintaz plateraren alde bat, bestaldean eta zutik porru lamina jarri, eta kipulina txikituaz apaindu.

geu elkartearen eskaintza

URTARRILAREN 28A, ASTEAZKENA

PATRICIA HIGHSMITH, RIPLEY TREBEA, IGELA 1999.

- **Otsailaren 26a, asteazkena**
Rikardo Arregi, Kartografia, Alberdania 1998.
- **Martxoaren 31a, asteazkena**
Isaac Bashevis Singer, Zortzi kontakizun, Elkar-Alberdania 2002.
- **Apirilaren 21a, asteazkena**
Jokin Muñoz, Joan zaretenean, Alberdania 1997.
- **Maiatzaren 26a, asteazkena**
Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea, Pamiela 2003.
- **Ekainaren 30a, asteazkena**
Arantza Iturbe, Lehenago zen berandu, Alberdania 1995.

LIBURUAK ESKURAGAI GEU ELKARTEAN

Elkarreak, ikasturte honetan Irakurle Klubak mintzagai izango dituen liburuen ale bana du, bazkideek alokairuan hartu nahi izanez gero.

Nola? Elkartera deituta -945222153 (arratsalde, Josune)- edo eskaera e-mailez (geuelkartea@grn.es) eginez.

Informazio gehiagorako, Geu elkartearen koordinatzailearekin harremanetan jarri, arratsalde (Josune).



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

Geu elkartearen ekimenez

HIKAATENEO-N ARRATSALDEKO 20.00ETAN

IRAKURLE KLUBA & ZAPATENEO

Elkarrean izateaz gain, Irakurle Klubeko liburuak ZAPateneko Kultur Elkartearen ere izango dituzue. Gainera, hileko liburua prezio berezian eskuratu ahalgo da.

Zapa Kalea, 95, behea. Asteartetik ostiralera, 18:30etatik 21:00etara eta Larunbatetan, 11:30etatik 13:30etara. Tfnoa. 945149379. e-maila: zapateneo@euskalerria.org

• KULTUR ERROTA. URTARRILAK 27 PARRAL-EN, 20.30ETAN

Biraka dabilen harria, sorkuntzan ari den herria (zehazteke)

Abenduan, kulturgileen data arazo batengatik, Irudipuinak ikuskizuna bertan behera geratu zen, horren ordez DIAPOESIA emanaldia eskaini zelarik. Barka endredoak.

GEU ELKARTEA & GAUEKOAK

URTARRILAK 23, ostirala, 22.30etan: ASIER SERRANO kontzertuan. "Gerrari bai" disko berriaren aurkezpena. **Sarrera:** 2 euro (30 urtetatik aurrerakoak: 4 euro). **ALDABE GIZARTE ETXEAN**

GEUREKIN MENDIRA

Urtarrilaren 18an

FLOR, UMIÓN (1434 m.)

ARDURADUNA: KIKE (945140158)

IRTEERA:

LOVAINA PLAZAN, goizeko 9.00ETAN

MINTZALAGUNA

Ostegunero 'Falerina', Montehermosoko kafetegian, 7etatik aurrera.

Lehenago elkartera deitu beharra dago izena emateko (945222153, arratsalde. Josune)

MINTZALAGUNAK, EUSKARA PRAKTIKAN JARTZEKO MODU ATSEGINA



"Gauza da hitz egitea eta lotsa kentzea"

Balorazio sakon bat egiteko garaia oraindik heldu ez den arren, Mintzalaguna taldeak pausoz pausoz ekiten dio azarotik aurrera abian jarri euskara praktikan jartzeko egitasmo honi. Bi hilabete eskas pasa dira ordutik eta asteen behin biltzen diren kideak pozik daude orain arteko saioren nondik norakoekin. Laguniezaguz euskara bultzatzen! Astindu lotsa eta zatoz gurekin lagun berriak egitera, ondo pasatzera! Zu bezala euskara praktikatzera datozen lagunekin topo egingo duzu bertan. Urtarilean ere ostegunero bilduko gara arratsaldeko 7etatik aurrera Falerina kafetegian (Montehermoso). Deitu Elkartera (Josune, arratsalde) eta egizu frogara, ez zaizu damuko! Interesik bai, baina ordutegia eta eguna ez badira aproposak, deitu eta egin zure proposamena. Zenbat eta jende gehiagok deitu orduan eta talde gehiago egiteko aukera izango da.

Zuen laguntzarekin urte berrian Gasteizen euskaraz are gehiago mintzatzea espero dugu!!

ITSASO ARRIZABALAGA (Taldeko dinamizatzailea)

"Mementoz talde txikia izan arren oso ondo moldatzen gara. Biltzen garenean gai ezberdinez mintzatzen gara, batzuetan alde aurretik prestatzen ditudan edota beste batzuetan sortzen direnei buruz. Ekintzen artean lagun batek egindako bidaiaren diapositibak ere ikusi eta komentatu ditugu", azpimarratzen du Itsasok. "Euskara ikasteko modu bat da mintzalaguna. Euskaltegira joateko astirik ez daukanak hemen aurki dezake laguntza eta hau klasea ez den arren euskara praktikatzeko modu atsegina da. Gauza da hitz egitea eta lotsa kentzea".

RAUL MARTINEZ (Mintzalaguna)

"Geu Elkartearen hasieran mintzalagun talde bat sortu zen eta garai hartan ni izan nintzen arduradun. Oso gustura izan ginen arren nik utzi behar izan nuen eta inork ez zuen ardurarik jaso; ni pena horrekin geratu nintzen -dio gazteak-. Jakin nuenean berriro hasiko zela apuntatu nintzen, lagun guztiak Lakuan bizi dira eta batez ere neguan gogo handiegirik ez dit ematen haraino joateak. Hortaz, jendea ezagutzeko aitzakiaz apuntatu nintzen. Oso jende jatorra da Mintzalagun taldera datorrena, elkarren artean oso ezberdinak gara baina primeran pasatzen dugu".

geuelkartea@grn.es

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

liburua

POESIA

**BATAK EZ DU
BESTEA KENTZEN**



**GERARDO
MARKULETA**

ALBERDANIA
2003ko abendua

Batak ez du bestea kentzen. Ez iltze batek beste bat, ez ardoak tristura, ez hitzek ahaztura, ez denborak mina.


Batak ez baitu bestea kentzen, hiru atal. *Ifernegan*, edo nola lagun dezaketen hitzek suaren eta hotzaren minetatik babesten. Azaldu beharra eta ezinbesteko aurrera-bidea, ez negar-kantaren zigorrik.

Gosari jendetsua, "maitasun" diogun horretaz, eta antzeko edo bestelako giza harremanez. Bestela ezin eta, hainbat ahotsetan: hain azaltzen du gutxi eredu erromantikoak...

Ertzetan presazko oharrak idatzi ohi dira, premiazko, ahaztu ezinezkoak. Bat-bateko zalantzak, lehenbailehen norbaiti galdetu beharrekoak. Mezu zifratuetan, sekreturik larrienak; eta karmin-lapitez, telefono zenbakiak.

Batak bestea kentzen ez duelako.

komikia



**LEKUKO
DESEROSOAK**

**PATXI ZUBIZARRETA
& JOKIN MITXELENA**

Gasteizko Udala
(euskara eta ingurumen saila)
2003ko abendua
(Gazteei zuzendua)

Gasteiz, udako gau bateko ametsa. Ametsa, edo amesgaiztoa. Bi gazte, edo lau. Gaizkiulertua. Itsaso ez da itsasoa. Edo bai. Hiru mafioso, edo bost. Ezinulertua. Eta ekaitza. Eta kontrabandoa. Eta balea. Gau abenturez betea. Gau ezin kilikagarriagoa. Gau erromantikoa. Eta, egunsentiarekin, igoa...

kangeuroak

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

- **Ordutegi guztiak**
Amaia.
635742429
- **Goizez**
Ilune. 945010322
- **Arratsaldez**
Patxi. 652743205
- **Gauetz**
Nerea.
658733934
- **Asteburuak**
Nagore.
945281124
- Marta.
606415235
- **Gau batez (afariak, ezkontzak,...)**
Miryam.
656761588

Garagardotegia

Ostiral, arratsaldez, **Asteburuero** ostialetik **IREKITA** iganduetan **IREKITA**

La Blanca

* Oilasko erreak
* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

EL

BAR Kutxi

eguneko menua

LA RIOJANA
jatetxea

bokatak, pintxoak, kazulatxoak

on egin!

Aiztozile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

DIBUtec
Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materiala
Tink. Jek. original en birziklatuak
Bulego Materiala
Enkuesdemuzioak
Plastifikazioak
Kopioak
Komiseten Estampaketak

azkarpint
Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimaketara.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua euskaraz bizi

PITILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIAZTUN



urte batetik...

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA,
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA




Zuek gauza gutxi dakizue
handiak zaretelako,
txikiak zaretenean ikasiko duzue.

(Uxue, 4urte)



Zatoz ezagutzera!

Portal de Castilla, 101
01007 GASTEIZ
Tel. 945 14 54 45
armentia@ikastola.net
Fax. 945 13 96 21



EGUNEAN-EGUNEAN BIZITZEN IKASTEN DUGU ELKARREKIN

Koldo Mitxelenan ikasten den lehen gauza da euskara Euskal Herriko ezaugarriarik behinena dela. Horregatik, mundu zabalean hainbat kultura galtzeko arriskuan dauden garaiotan buru-belarri jarduten gara gure hizkuntza berreskuratzeko asmoz. Euskaltasunetik begiratzen diogu munduari

KM
KOLDO MITXELENA
INSTITUTUA

DBH / ESO
Behenafarroa 2/g Tlf. 945 26 22 33

www.koldomitxelena.net



berria

KUTXIEZU BIDEA ZURE LAGUNEI



- Egunero goizeko 11etatik aurrera zabalik (igandeetan 12etatik aurrera).
- Pintxo goxoak.
- ...eta gutxi barru afariak: entsaladak, pizzak eta hojaldre beteak.
- Giro euskalduna.

ba
ga
re
euskal
tokia



euskaldunon topagunea
Kutxi 62, 01001 - Gasteiz

